

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

1165

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 1ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez, errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen eta argitaratzen baitira eta horien deialdia egiten baita, Suspertze-, Eraldatze- eta Erresilientzia-Planaren esparruan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den EEERi eskumena eman zaio energia aurrezte eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak eta energia-dibertsifikazioa bultzatzeko eta energia-azpiegiturak sustatzeko jarduketak gauza ditzan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Ilido horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian jasotako helburuak betetzeko. Jarduketa horien artean laguntza-programak aipatu behar dira, energia-kontsumoan efizientzia gehitzeko, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzeko helburua dutenak, ingurumen-inpaktua gutxituko denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak zuzenean ematea onartzen duen azaroaren 16ko 983/2021 Errege Dekretuaren bitartez (2021eko azaroaren 17an argitaratu zen, 275. Estatuko Aldizkari Ofizialean), errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri ziren.

983/2021 Errege Dekretuko 9. artikuluko 2. atalean ezarritakoa betez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak eta EEERi zuzendari nagusiak Garraioetako, Mugi-kortasuneko eta Hiri Agendako Estatu Idazkaritzari formalki jakinarazi zioten Euskal Autonomia Erkidegoari emandako dirulaguntza espresuki eta argi eta garbi onartzen zuela, Errege Dekretu horri erabat lotuta egonik 6.618.775 euro dena.

Programa hori egikaritzea lagungarri izango da Euskal Autonomia Erkidegoan lortzeko Europar Batasunaren araudian ezarritako inguruen- eta energia-helburuak, garraioaren jasangarritasunerako funtsezkoak diren inbertsioak azeleratuz sektorean hobekuntzak bultzatzeko helburuarekin. Hala, hirietako airea hobetu nahi da eta deskarbonizazioa bultzatu, ibilgailu-flotak berrituz. Titulartasun publikokoak alde batera utzita ibilgailu-flota berritzeko pizgarri-sistema horren diseinuaren helburuak dira salgai eta bidaiarien garraioko ibilgailu astunen parkea berritzea, karbono gutxiko energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuen propultsiorako teknologiak sar daitezela sustatzea, eta automozioaren sektorea bultzatzea eta industria suspertzea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— EEEko organo errektoreen funtzioak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoa betez, errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan, horren edukia ebazpen honi lotu zaiolarik I. eranskin gisa.

Bigarrena.— Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategia onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzeko ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2022ko martxoaren 1a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.

2022ko martxoaren 11, ostirala



ERANSKINA

ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ENPRESA
PRIBATUEN BIDAIRI ETA SALGAIEN GARRAIO-FLOTAK, BAI ETA GARRAIO PRIBATU
OSAGARRIAK EGITEN DITUZTEN ENPRESENAK ERE, ERALDATZEKO LAGUNTZA-
PROGRAMA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN
ESPARRUAN.

OINARRIAK

2022ko martxoaren 11, ostirala



Errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntza-programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren izaera

- 1.1.** 2021eko azaroaren 17an 275. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, *Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak zuzenean ematea onartzen duen azaroaren 16ko 983/2021 Errege Dekretuak* (hemendik aurrera, "**983/2021 ED**"), errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri zituen. Hori guztia, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatutako Suspertze Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. Osagaiaren esparruan.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan bilduta egonik 983/2021 EDaren xede diren dirulaguntzak, C1.1.1 Inbertsioko laguntza-ildoetako bati dagozkio, zehazkiago, 3. neurriari: errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen —udal-titulartasunekoak alde batera utzita— bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko inbertsioa.

Programa horren helburua da garraioaren jasagarritasunerako funtsezkoak diren inbertsioak azeleratzea, sektorean hobekuntzak bultzatzeko helburuarekin. Hala, hirietako airea hobetu nahi da eta deskarbonizazioa bultzatu, ibilgailu-flotak berrituz. Titulartasun publikokoak alde batera utzita ibilgailu-flota berritzeko pizgarri-sistema horren diseinuaren helburuak dira salgai eta bidaiariaren garraioa ibilgailu astunen parkea berritzea, karbono gutxiko energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuen propulsiarako teknologiak sar daitezela sustatzea, eta automozioaren sektorea bultzatzea eta industria suspertzea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean (hemendik aurrera, "**EAE**").

Horregatik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Esparruan, 983/2021 EDaren eta Programa honen barruan jarduketa subentzionagarritzat jotzen dira, dokumentu honetan aurreikusitako betekizunak betetzeaz gainera, honako xede hauek dauzkatenak:

- a) ibilgailuak txatar bihurtzea.
- b) karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea.
- c) «retrofit»-a edo ibilgailuen propulsiar modua aldatzea.
- d) ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea.
- e) trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea.

Aipatzekoa da, gainera, 983/2021 EDtik eratorritako laguntza-programa honen deialdia justifikatzen duten arrazoi eta helburuak erabat lerrokatuta daudela Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutakoekin. 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, energia-kontsumoan efizientzia gehitzekoa da eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasagarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

- 1.2.** Aipatutako 983/2021 EDaren bidez adostu da errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak zuzenean ematea, Suspertze, Eraldatze eta

2022ko martxoaren 11, ostirala



Erresilientzia Planaren esparruan, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, ezarritako banaketa-irizpideei jarraikiz, 174 milioi euroko zenbatekoaz, II. Eranskinean finkatutakoari jarraikiz, EAEren kasurako 6.618.775 euroko zenbatekoaz zehazki.

2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientziarako Europako Mekanismoak finantzatzeko dituen Programa honek araututako laguntzak, urteroko Aurrekontu Orokorretan Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari esleitutako zenbatekoen bitartez.

Horrenbestez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatu bidaiei eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntza-programa (hemendik aurrera, “Programa” edo “Laguntza-programa”) honetarako hornidura ekonomikoa 6.618.775 euro izango da, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (hemendik aurrera, “EEE”) aurrekontuetan xede horretarako ezarritako kredituaren arabera.

Behin dagozkion zeharkako kostuak kenduta (% 3), laguntzen azken hartzaileei bideratutako gehieneko zenbatekoa **6.420.211,75 euro** izango da, hori guztia 3. oinarrian adierazitako banakapenari jarraikiz.

- 1.3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, 2022. urterako EEEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eguneratzea onartu da, laguntza-programa hau horren barruan dagoelarik.

EEEren 2022rako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.4. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.5. Laguntza horien eta Estatuko laguntza-alorreko erregulazioaren arteko bateragarritasunari dagokionez:

- a) 4. oinarriko 1. atalean adierazitako eta Programa honen **I. ERANSKINEAN** garatutako jarduketa subentzionagarrietarako (1. jarduera: Txatar bihurtzea) laguntza Estatuko laguntzat jotzen da.

Haren erregimen juridikoa konfiguratzen da apirilaren 2an Europako Batzordeak hartutako SA.56851(2020/N) Erabakian eta haren aldatetara onartutako Aldi Baterako Esparru Nazionalarekin bat etorriz, non egungo COVID-19aren testuinguruan ekonomia babesteko laguntza-neurriak jasotzen diren, eta, testuinguru honetan bereziki, sektoreko enpresa eta autonomoen likidezia hobetzeko helburuarekin.

Aldi Baterako Esparru Nazional horren indarraldia amaitzen denez geroztik, laguntza horiek bete beharko dute Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamendua (hemendik aurrera, “**Minimis erregelamendua**”).

Hala, 1. jarduerarako (Txatar bihurtzea) laguntzak Estatuko laguntzak dira, eta lehenago aipatutako erregimen juridikoaren eraginpean jarriko dira, 983/2021 EDaren 16.2 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

- b) 4. oinarriko 1. atalean adierazitako eta 2. jarduera: Karbono gutxiko energia alternatiboan bidezko ibilgailuak erostea, 3 - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propulsiio modua aldatzea, eta 4 - ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea gisa jasotako jarduketa subentzionagarrietarako laguntzek, 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan ezarritako betekizun eta mugak bete beharko dituzte (hemendik aurrera,

2022ko martxoaren 11, ostirala



“651/2014 Erregelamendua”), eta ingurumena babesteko laguntzen kategoriari dagokion salbuespena aplikatuko da (7. atala), aplikatzekoak izan litezkeen Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

- c) 4. oinarriko 1. atalean adierazitako eta 5. jarduera - Trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea gisa jasotako jarduketa subentzionagarrietarako laguntza Estatuko laguntzatzat jotzen da, Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, eta Europar Batasunari jakinarazi zaio SA.63113 erreferentziarekin.

Jarduera horretarako laguntzak emateko, 983/2021 EDko 4.2 artikuluan eta 3. oinarrian ezarritakoa bete beharko da, eta ezein Administrazio Publikoak ezin izango du Europar Batasunak espresuki edo tazituki baimendu ez duen neurririk ezarri.

2. Laguntzen azken hartzaileak

- 2.1. Programa honen 4. oinarrian araututako inbertsioetarako laguntzen azken hartzaileak izango dira, betiere egoitza fiskala EAEn badute eta dokumentu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badituzte, baimen hauetako baten jabe diren pertsona fisikoak (autonomoak) edo juridikoak, dagokion baimenak indarrean egon behar duelarik laguntzak eskatzen diren egunean:

- Salgaien garraio publikorako baimen bat, 3,5 tn-ko gehieneko masatik gora duten ibilgailuekin edo ibilgailu multzoekin garraiatzeko gaitzen duena, MPDE gakoarekin identifikatua.
- Bidaiariak autobusean eramateko eskatu ahalako garraio publikorako baimen bat, VDE gakoarekin identifikatua.
- Salgaien garraio pribatu osagarriko baimen bat, 3,5 tn-ko gehieneko masatik gora duten ibilgailuekin edo ibilgailu multzoekin garraiatzeko gaitzen duena, MPCE gakoarekin identifikatua.
- Bidaiarien autobus-garraio pribatu osagarriko baimen bat, VPCE gakoarekin.
- Salgaien garraio publikorako baimen autonomiko bat MDLE gakoarekin, betiere baimen horri esleituta badituzte, 983/2021 ED onartu zen datan (2021eko azaroaren 16a) 3,5 tn-ko gehieneko masatik gorako ibilgailuak.

Atal honetan definitutako azken hartzaileek laguntzak jaso ahalko dituzte, soil-soilik, beren titulartasunpeko baimenak ematen dien gaikuntzari lotutako ibilgailu klaseari eta kategoriari loturik.

- 2.2. Honako hauek ezin izango dira laguntzen azken hartzaile izan:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren bat betetzen ez dutenak (hemendik aurrera, “DEO”).

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharrak horiek bete izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

Azken hartzaileak egunean egon beharko du, halaber, Dirulaguntzei buruzko Legeko 13. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeari dagokionez, besteak beste, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta xede horretarako aintzat hartuko da azken hartzaileak laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, administrazio-organo emaileari eta instruktoareari baimena ematen diela informazio hori zuzenean

2022ko martxoaren 11, ostirala



kontsultatzeko zerga-administrazioarekin edo dagokion Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin, prozedura izapidetu bitartean beharrezkoa den guztietan.

- b) Krisi-egoeran dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideetan xede horretarako egiten den definizioari jarraikiz (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).
- c) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- d) Hiriko garraio publikoko zerbitzua ematen duten titulartasun publikoko enpresak edo entitateak.
- e) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresek.

3. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko epea

Laguntza-programa honetara bideratutako hornidura ekonomikoa **6.420.211,75 €**, da guztira, EEEn aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituaren arabera, eta, 4. oinarrian azaldu bezala, Jarduera bakoitzerako honako zenbateko hauen arabera banatua:

1. jarduera - Txatar bihurtzea	963.031,76€
2. jarduera - Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea	3.210.105,81€
3. jarduera - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propulzio modua aldatzea	642.021,18€
4. jarduera - Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea	1.555.053€
5. jarduera - Trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea	50.000 €
GUZTIRA	6.420.211,75 €

Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 15ean hasiko da, 08:00etan, eta haren indarraldia 2024ko abenduaren 30ean amaituko da, 4. jardueraren kasuan izan ezik (ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea), haren indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaituko delarik.

Nolanahi ere, 4. oinarrian aurreikusitako eta **I. ERANSKINEAN** garatutako 5. jarduerari (Trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea) dagozkion jarduketak egiteko Programa honetan aurreikusitako laguntzak ezin izango dira eman Europako Batzordeak horretarako baimena eman aurretik.

Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez da eskaera gehiago onartuko. Nolanahi ere, esleitutako aurrekontua agortzen ez bada eta betiere programen indarraldia amaitu ez bada (2024ko apirilaren 30a 1-2-3-5 jardueretarako eta 2023ko abenduaren 31a 4. jarduerarako), eskaerak erregistratzen jarraitzeko aukera izango da behin-behineko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordena zorrotzari jarraikiz erantzungo zaie, baldin eta aldeztu aurreko laguntza-eskaeren ezespen edo errebokatzeen ondorioz aurrekontua liberatzen bada edo deialdiari aurrekontu berria erantsen bazaio. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebazten ez den arte.

Horrez gain:

- a. 983/2021 EDaren 7. artikuluko 5. atalean adierazitakoarekin bat etorriz, deialdi honen indarraldia amaitzeko hiru (3) hilabete geratzen diren dataz geroztik, Jarduera bakoitzerako erreserbatutako partidetak bat agortzen ez bada eta beste partida batek erreserba- edo itxarote-zerrenda bat badu, aurrekontua Jarduera tipologiaren artean berresleitzeko aukera izango da, eta kasu horretan, hasiera

2022ko martxoaren 11, ostirala



batean aurreko koadroan Jardueren arteko banaketarako ezarritako mugak indargabetuko dira, eta horrela, ezar zitezkeen aurrekontu-erreserbak liberatuko dira.

- b. 983/2021 EDko 7. artikuluko 6. eta 7. ataletan eta 13. artikuluan adierazitakoa betez, Programaren aurrekontua handitzeko aukera izango da, EAerako helburuen egikaritze- eta betetze-mailaren ebaluazioa egin ondoren, eta, betiere, hasiera batean ezarritako aurrekontua agortu bada edo agortzeko gutxi falta bada (6.420.211,75 euro).
- c. Azkenik, 983/2021 EDko 7. artikuluko 6. eta 7. ataletan eta 13. artikuluan eta zehazki IV. Eranskinean adierazitakoarekin bat etorritik, Programa honi esleitutako aurrekontua murrizteko aukera izango da, ezarritako baldintzak, mugak eta helburuak betez.

Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean “**39/2015 Legea**”) 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa

4.1. Jarduera bakoitzaren barruan jarraian zerrendatzen direnak izango dira jarduketa subentzionagarriak, eta **I. ERANSKINEAN** bakoitzerako ezarritako betekizunak bete beharko dituzte:

- a. 1. jarduera - Txatar bihurtzea.
- b. 2. jarduera - Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea.
- c. 3. jarduera - “Retrofit”-a edo ibilgailuen propulzio modua aldatzea.
- d. 4. jarduera - Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea
- e. 5. jarduera - Trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea.

4.2. Aldi baterako, M kategoriako gas ibilgailuetarako (GNK, GNL) Programan ezarritako laguntzak eman ahaliko dira, «zoru baxuko» ibilgailuak alde batera utzita, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduari I. eranskineko C ataleko 3. puntuan zehaztutakoaren arabera, nola 2. jarduerarako (karbono gutxiko erregai alternatiboen bidezko ibilgailu berriak erostea) hala 3. jarduerarako («retrofit»-a edo ibilgailuen propulzio modua aldatzea), 2023ko abenduaren 31ra arte, 983/2021 EDko lehen xedapen gehigarrian adierazitakoa bete beharrik gabe.

Data horren ostean, gas-ibilgailuari lotutako edozein laguntza (GNK, GNL) 983/2021 Errege Dekretuko lehen xedapen gehigarrian adierazitakoa bete beharko du.

4.3. 1. jarduera gisa (Txatar bihurtzea) aipatutako jarduketa subentzionagarrietarako laguntzak emateko, Europako Batzordeak apirilaren 2ko SA.56851(2020/N) Erabakian eta haren aldaketetan onartutako Aldi Baterako Esparru Nazionalen ezarritako betekizun eta mugak bete beharko dira, betiere laguntza emateko data haren indarraldiaren barnean badago.

Aldi Baterako Esparru Nazional horren indarraldia amaitzen den egunaz geroztik 1. jarduerari (Txatar bihurtzea) ematen zaizkion laguntzek bete beharko dute, minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua (aurrerantzean, “**Minimis Erregelamendua**”), aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionalen zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Azken hartzaile horietako bakoitzari eman ahaliko zaion *minimis* laguntzen zenbateko osoa, gehienez ere, 200.000 euro izango da, hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan.

Horrez gain, azken hartzaile horietako bakoitzari eman ahaliko zaion *minimis* laguntzen zenbateko osoa, errepide bidez salgaiak garraiatzeko eragiketarik besteren kontura egiten badira, gehienez ere, 100.000 euro izango da, hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan.

2022ko martxoaren 11, ostirala



- 4.4. 2. jarduera: Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea, 3 - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propulzio modua aldatzea, eta 4 - Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea** gisa aipatutako jarduketa subentzionagarrietarako laguntzak emateko, 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan ezarritako betekizun eta mugak bete beharko dira (hemendik aurrera, "**651/2014 Erregelamendua**"), eta ingurumena babesteko laguntzen kategoriari dagokion salbuespena aplikatuko da (7. atala), aplikatzekoak izan litezkeen Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko laguntza-muga bat ezartzen da, dokumentu honen **I. ERANSKINEAN** adierazitakoari jarraikiz.

- 4.5. 5. jarduera: Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea** gisa aipatutako jarduketa subentzionagarrietarako laguntzak emateko, Europar Batasunak alde aurreko baimena eman beharko du eta haren baimen-ebazpenean ezarritako betekizun eta mugak bete beharko dira, aplikatzekoak izan litezkeen Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

- 4.6.** Laguntzak pizgarriak direnez, laguntza-eskaera erregistratzen den dataz geroztik hasitako laguntzen azken hartzaileen jarduketak onartuko dira soilik. Hori alde batera utzi gabe eskaera aurkezteko edo dagozkion inbertsioak burutzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak egitea, hala nola proiektua, memoria teknikoak edo ziurtagiriak, horiek guztiak subentzionagarritzat hartu ahalko direlarik, eskaeraren aurretik fakturatu badira ere, betiere prestakuntza-jarduketa horiek 983/2021 ED BOEn argitaratu zen dataren (2021eko azaroaren 17a) ondoren hasi badira.

- 4.7.** Azken hartzaileentzako **laguntzen zenbatekoa** Oinarri hauetako **I. ERANSKINEAN** ezarri da jarduketa subentzionagarrietarako.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak

- 5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzailearen eta deialdiaren arabera**
4. oinarrian eta **I. ERANSKINEAN** aipatutakoa betez.

5.2. Europako araudi aplikagarria

1. eta 4. oinarrietan aipatutakoari jarraikiz.

5.3. Bateragarritasun-erregimena beste laguntza batzuekin

4. oinarrian araututako jarduketetarako dirulaguntzak bateraezinak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk helburu berberarekin emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

Programa honetan araututako laguntzak ezin izango dira inoiz bateragarri izan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan udalerriei emisio gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarrirako ematen zaizkien laguntzekin edo beste edozein europar laguntzarekin, bereziki CEF eta FEDER funtsetatik edo Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren beste osagai batzuetatik eratortzen badira.

5.4. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin kontratatzea edo azpikontratatzeta

- a) Dirulaguntzei buruzko Legeko 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduan 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, laguntzaren azken hartzaile batek azpikontratatzeko duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: dirulaguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren egikaritzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Subentzionatutako den jarduera

2022ko martxoaren 11, ostirala



aurrera eramateko azken hartzaileak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, 29. eta 68. artikuluko horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

- b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), azken hartzaileak gutxienez hiru (3) eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta Administrazio Elektronikaz diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean "**21/2012 Dekretua**"), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Tramitagune Eusko Jaurlaritzako tramitazio elektronikoa aplikatuz, Euskadi.eus webgunean eta EEEn webgunean eskuragarri dagoena (www.eve.eus). Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkeztu bada, sinadura elektronikoki aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikuluan arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoki aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

Eskaera bakar bat aurkeztu beharko da aurreikusitako edozein Jardueratan laguntzaren xede izan nahi duen jarduketa bakoitzeko.

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, 6. oinarrian aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, 3. oinarrian adierazten den epearen barruan.

2022ko martxoaren 11, ostirala



Eskaeren onarpenerako hautagarritasuneko aldiaren xedeetarako, laguntza-eskaeraren erregistro-data hartuko da kontuan.

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez 8.1 oinarriaren lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortzen ez bada, eta betiere Programaren indarraldia amaitu ez bada, eskaerak behin-behineko erreserbako zerrendan erregistratzeko aukera izango da, 3. oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

Laguntza-eskaerak Oinarri hauetako **II. ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazio guztiarekin batera joango dira. Nolanahi ere, EEEK eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertze beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

8.1. Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 62.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (hemendik aurrera, "**36/2020 Errege Lege Dekretua**"), eta kontuan hartuta aurreikusitako laguntzak bideratzen direla beste proposamen batzuekiko konparaziozko balioespenaren beharrik ez duten jarduketa edo egoera zehatzak finantzatzera, laguntzak emateko ebazpenak emango dira konkurrentzia jarraituko prozedura baten bitartez, behin egoera edo jarduketa subentzionagarriaren konkurrentzia egiaztatu eta eskatutako gainerako betekizunak bete ondoren, deialdietan esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Hala, eskaerak aurkezten diren ordena zorrotzaren arabera aztertu eta tramitatuko dira.

8.2. EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, gaitzetsizat hartuko da eskaera.

Ebazpenean honako hauek azalduko dira: (i) dirulaguntzaren xedea den jarduketa, (ii) haren zenbatekoa (kopuru gordina, azken hartzailearen izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) funtsen jatorria, (iv) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, eta (iv) eskaerari ezezkoa emanez gero, ezezkoaren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze-errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, "**29/1998 Legea**").

8.3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (Dirulaguntzei buruzko Legearen 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).

8.4. Azkenik, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, "**19/2013 Legea**") eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduak diotenarekin bat etorritik, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta EHAA argitaratuko ditu laguntza-programa honi jarraikiz emango diren dirulaguntzak, legeak eskatzen dituen datuak ere azalduz bertan, eta 983/2021 EDan Autonomia

2022ko martxoaren 11, ostirala



Erkidegoetarako ezartzen diren publizitate- eta informazio-alorreko gainerako betebeharrak beteaziko ditu.

9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea

- 9.1. Gehienez hamabi (12) hilabeteko epean laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik, laguntzen azken hartzaileek justifikatu beharko dute laguntzaren xede den jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu dela, 4. jarduerari (Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea) dagozkion jarduketan kasuan izan ezik, non gehienez hemezortzi (18) hilabeteko epea izango duten laguntzaren xede den eragiketa egin, fakturatu eta ordaindu dela justifikatzeko.
- 9.2. Azken hartzaileek laguntzaren justifikazioa EEEen egin behar dute, elektronikoki, 6. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe.
- 9.3. Laguntzen azken hartzaileak aplikatzekoa den Oinarri hauetako **II. ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, eta, espezifikoki, egikaritu den jarduketaren arabera adierazitakoa. Horri dagokionez, espresuki adierazten da ez dela dokumentazioa aurkezteko inolako salbuespenik ezarriko, eta jarduketa egin dela justifikatzeko aurkeztuko den dokumentazioak bat etorri beharko duela laguntza eskatzeko formularioan aurkeztutako informazioarekin.
- 9.4. EEEk automatikoki eta ofizioz egiaztatuko ditu helbide fiskala, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta hartu izanaren agiria, eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan egunean egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari lotutakoei dagokienez izan ezik. Horri dagokionez, azken hartzaileak, laguntza-eskaera aurkeztean, baimena emango die bai administrazio-organo emailari bai instrukzio-egileari, informazio hori zuzenean kontsultatu ahal izan dezaten. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen inplizitu hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatutako agiria aurkeztu beharko du, betiere 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.
- 9.5. Laguntzaren azken hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legeko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa osatu gabea bada, akastuna bada, edo postaz edo presentzialki aurkezten bada, laguntzaren azken hartzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaera-idazkiaren bidez, laguntzaren azken hartzaileak zuzentze-jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).
- 9.6. EEEk ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko epea, eta justifikazioa Oinarri honetan ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebokatzea eta Dirulaguntzei buruzko Legean ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.
- 9.7. EEEk gehienez sei (6) hilabeteko epea izango du laguntzaren azken hartzaileak justifikazioa aurkezten duenez geroztik, dirulaguntzaren xede den jarduketa behar bezala egikaritu eta bete dela egiaztatzeko.
- 9.8. Eskatutako dokumentazioa jasotakoan dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balioespina positiboa bada, EEEk laguntza ordainduko du, funtsen jatorriaren erreferentzia espresua eginda, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioa eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa aipatuz, horri dagokionez ezar daitekeenari jarraikiz.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa

2022ko martxoaren 11, ostirala



baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errelokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

Aldiz, laguntzaren azken hartzaileak:

- Justifikazio-betebeharra betetzen ez badu 9. oinarrian aurreikusitakoari jarraikiz.
- Oinarri hauetan, 983/2021 EDan eta/edo dirulaguntzen alorrean ezarritako araudian bildutakoez bestelako edozein baldintza betetzen ez badu.

Laguntzaren erabateko errelokazioko espediente bati emango dio hasiera EEKk. Lehendik aurrerakin bat eman bada, aurreratutako zenbatekoa osorik itzultzeko espediente bat ere irekiko litzateke, errelokatzeari jasotakoaren arabera.

Laguntzaren bi errelokazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, eta, bidezko bada, aurrerakina itzultzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduen 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

9.9. Laguntzaren azken hartzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEKk dirulaguntza, identifikatutako proiektua dagokion laguntza-eskaeran amaitu ondoren, lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen dokumentazioa EEKri aurkeztu ondoren.

9.10. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak, bere erakunde autonomiadunek edota EEK emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Azken hartzaileek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, hauxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo azken erabiltzaileei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 21. artikulua).

10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEK Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalko ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEK beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren in situ egiaztatzea egingo zaien azken hartzaileei aldeztatik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEKren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEK onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena

2022ko martxoaren 11, ostirala



egin, EEerekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio azken hartzaileari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEek dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebokatze espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEek dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatze espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legeko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak

Deialdi honen xede den laguntzen azken hartzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a. Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak, baita 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EB 2021/241 Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzeko aplikatu litekeen Estatuko zein Europako araudian jasotakoak ere.
- b. Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean onuradunak berariaz eta idazki bidez uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, dirulaguntzen deialdi honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei eta gainerakoei dagokionez, baita laguntzen deialdi honi dagokionez ere.
- c. Dirulaguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari eta eskumeneko beste edozein organori (besteak beste Europako Funtsen Idazkaritza Nagusia, Estatuaren Administrazioaren Esku-hartze Nagusia, Kontu Auzitegia, Europako Batzordeko kontrol- eta ikuskapen-organoak) ematea eskatu ahal dioten informazioa; betiere, dirulaguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko eskatzen badiote dirulaguntzen deialdi honen kargura, eta, espezifikoki EEek, 983/2021 Errege Dekretuan aurreikusitakoa betez, nahitaez igorri behar duen informazioa.
- e. Kudeaketaren ardura duen organoa den heinean 983/2021 EDak EEeri agindutako betebeharrak guztiz betetzen direla zaintzea, eta, aldi berean, EEeri zeregin horretan laguntzea. Ildo horretan, laguntzen azken hartzaileek honako hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte espresuki:
 - Deklaratutako gastua ordaindu dela eta aplikatzeko den legeria betetzen duela.
 - Gastuaren finantzaketa Europar Batasunaren beste programa eta tresna batzuekin batera gertatzen bada, laguntzak ez duela kostu bera estaltzen.
 - Gastuaren finantzaketa ez dela beste finantzaketa-araubide nazional batzuekin bikoizten.
 - Laguntzen azken hartzaileek, eragiketarekin lotutako transakzioetarako kontabilitate-sistema bereizi bat edo kontabilitate-kode egoki bat erabiltzen dutela bermatzea.
 - Iruzuraren aurkako neurri eraginkorrak eta neurrizkoak ezartzen dituztela, atzemandako arriskuen arabera.
 - Auditoria-pista egoki bat edukitzeko behar diren auditorien eta gastuaren gaineko dokumentazioa erabilgarri dagoela bermatzeko prozedurak ezartzen dituztela.
 - Subentzionatutako eragiketa guztien administrazio-egiaztapen egokiak egitea ahalbidetzen dutela, gastuaren erregulartasuna, ordainketen errealitatea eta laguntzaren baldintzetarako egokitasuna bermatu ahal izateko.
 - Adierazgarritasuna bermatzen duen laginketa metodo baten bitartez hautatutako eragiketa zehatzak lekuan bertan egiaztatzea ahalbidetzen dutela.

2022ko martxoaren 11, ostirala



- Jasotako laguntza-zenbatekoaren jarraipen zehatza eta berezia egiten dute, Estatu-laguntzen gaineko Europako araudian ezarritako laguntzaren intentsitateak, mugak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari kudeatzeko eta egikartzeko aplikatzekoa den beste edozein arau edo erregelamendu ere aplikatuz.
 - Finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmentzen dela, bidezko bada, Europar Batasunaren ikurrarekin eta «Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU» dioen finantzaketa-adierazpen egoki batekin, bereziki ekintzak eta haien emaitzak sustatzen direnean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarri, komunikabideak eta publikoa barne.
 - «Kalte esanguratsurik ez egitearen» printzipioa eta klima-etiketa guztiz betetzen direla bermatzen da, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoari jarraikiz.
- f. EEERI, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- g. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, laguntzaren azken hartzaileak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat egokitzen zaiola indarreko araudi aplikagarriari, teknikoari edo urbanistikoari, edo beste edozein izaeratakoari.
- h. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketaren xede izan daitezkeela kontuan hartuta. Dokumentuen erabilgarritasuna, Europako funtsei aplikatzekoa den araudian —eta, bidezko bada, Finantza Erregelamenduen 132. artikuluan— ezarritakoari lotuko zaio.
- i. Laguntzen azken hartzaileek kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute laguntzaren xede den jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- j. Subentzionatutako ondasunaren titularrak izan beharko du onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez jarraian adierazten diren epeetan, laguntza eman zitzaion egunaz geroztik.
- Ibilgailuen kasuetarako, onuradunak gutxienez bi urtean izan beharko du, dirulaguntza jaso zuen ibilgailuaren titularrak.
 - Renting eragiketen kasuetarako, kontratuak gutxienez 2 urteko indarraldia izan beharko du.

Kargatze-puntuaren kasurako, puntuaren titulartasunak gutxienez bi urtez egon beharko du indarrean. Sarbide publikoko kargatze-kasurako, puntua gutxienez bost urtean indarrean egotea bermatu beharko da.

Laguntzaren azken hartzaileak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, aldez aurretik ezarritako epea igaro ondoren, honako hauek bete beharko ditu:

- EEERen aurrean egiaztatzea, adieraztea eta akreditatzea, erosle berriak betetzen dituela laguntzaren azken hartzaile izateko Oinarri hauetan aurreikusitako betekizun guztiak.
- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:
 - Ondasun hori Programa honen laguntzaren xede izan dela.
 - Erosle berriak laguntzaren azken hartzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, onuradun-kondiziotik eratorritako betebeharren indarraldia amaitu arte.
- EEERI egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik.

Laguntzaren azken hartzaileak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera.

2022ko martxoaren 11, ostirala



k. Publizitate-alorreko betebeharrak dagokienez:

- Argitalpenetan, hedatze-jardueretan, webguneetan eta, oro har, edozein hedabideetan, Oinarri hauek araututako laguntzen xede den jarduketari buruz egiten den edozein erreferentziak kasuan-kasuan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Irudi Eskuliburuan jasotako betekizunak bete beharko ditu, eta, bidezko bada, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak onartutako Eskuliburuan jasotakoak. Aurrekoa gorabehera, adierazi beharko da, betiere, jarduketa Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen bitartez finantzatuta eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatuta dagoela, Dirulaguntzei buruzko Legearen 18.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.
- Jendeari informazioa emango dio Europako funtsetatik lortutako laguntzaz, webgunean, webgunerik badu, eragiketaren deskribapen labur bat eginez, proportziozko moduan emandako laguntza-mailarekiko, laguntzaren helburu eta emaitzekin, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz betiere.
- Kasu guztietan, finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmendu beharko da, bereziki jarduketa subentzionagarriak eta haien emaitzak sustatzen direnean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarritz, komunikabideak eta publikoa barne.

Halaber eremu horretan garatzen diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridikoek «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana – Europar Batasuna-NextGenerationEU-k finantzatua» erreferentzia eraman beharko dute, goiburuan zein garapen-gorputzean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikularekin bat etorritik.

- l. EEEk hala eskatzen baldin badiot, azken hartzaileak konpromisoa hartzen du erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazioa baimentzeko ere, hamar (10) urteko epean, EEEk dirulaguntza ordaintzen duen egunetik kontatzen hasita.
- m. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEERi, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betetzeko eskatzen dion edozein informazioaren berri ere.

12. Ez-betetzeak eta itzulketak

Laguntzaren azken hartzaileak jasotako dirulaguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legeko interesari % 25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kopuru bat esaten ez badu), dirulaguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, Oinarri hauek, 983/2021 Errege Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Eta zati bat itzuli behar denean, Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.2 artikuluan adierazitako mailakatze-irizpideak hartu beharko dira kontuan, kasuan kasu honako hauek dagokienez maila aintzat hartuz: (i) Programa honetan aurreikusitako xedek eta helburuak betetzea, (ii) subentzionatutako jardueren egikaritze materiala, (iii) subentzionatutako jardueren dagozkien zenbatekoak fakturatu eta ordaintzea.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak eta **14. oinarrian** aurreikusitako gainerako arau aplikagarriak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedienteak ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko litzaioke EEERi, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betetzeko: 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Titulua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei

2022ko martxoaren 11, ostirala



eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, araubidea eta betebeharrak finkatzen dituen. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatze espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularazteko, EEKo zuzendari nagusiak du.

13. Eskatzaileei informatzeari buruzko klausula

Datuen babesari buruzko informazioa	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) tel.: 94.403.56.00 harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den erlazioaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahalko dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Emakiden hartzaileak	Kontrol-arloko eta kontrol-alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak. Espezifiki, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioa
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatze, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEeri idazki bat bidaliz, " <i>datuak babesteko eskubideak egikaritzea</i> " adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikari daitezkeen neurrian.
	Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Dirulaguntzaren azken hartzaile orok konpromisoa hartzen du, bere dirulaguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEeri eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEeri datu pertsonak behar bezala lagatzeko.	

14. Azken xedapenak

1. EEren erabakiak izaera administratiboa du eta EEek kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEek.
3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken hartzailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEek eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko

2022ko martxoaren 11, ostirala



ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.

4. 983/2021 EDko 11. artikuluko 4. atalean jasotzen denez, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, laguntza-eskatzaileri honako hauei buruzko informazioa ematen zaie:

- a) Dirulaguntza, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean erregistratu izana, 130/2019 Errege Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz.
- b) Administrazioak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako organo guztiek, JUS/319/2018 aginduari jarraikiz sortutako Titulartasun Errealen Erregistroan bildutako informazioan sartzeko aukera, edota titular errealean gaineko datu horien berri eman ditzaketen Administrazioaren beste datu-base batzuetan sartzeko aukera.
- c) Sistema horien eta Europako Funtsen Sistemaren arteko informazio-lagapena, aplikatzekoa den araudi europar eta nazionalean bildutako aurreikuspenen arabera. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduko 22. artikuluko 2. ataleko e) letraren eta Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan arabera [(EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa], Suspertze eta Erresilientzia Planaren funtsak jaso ahal izateko, azken hartzaileek beren gain hartu behar dute, idatziz, Batzordeak, OLAFek, Europako Kontu Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta eskumeneko agintari nazionalak beren eskumenak betetzen dituztela bermatzeko behar diren eskubide eta sarbideak ematea.

5. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:

- Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak zuzenean ematea onartzen duen azaroaren 16ko 983/2021 Errege Dekretua, eta bereziki, 983/2021 EDaren 3. artikuluko 1. atalean aipatutako arauak.
- TMA/138/2022 Agindua, otsailaren 28koa, honako errege-dekretu honen I., III., IV. eta VI. eranskinak aldatzen dituena: 983/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen eta garraio pribatu osagarria eraldatzen duten enpresa pribatuen bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko flotak eraldatzeko laguntzak autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzenean ematea onartzen duena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa;
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;
- Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten duena minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduaren eta Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionalen zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendua ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.



- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituen, bere azken xedapenetan lehenaren arabera oinarritzekoak diren xedapenetan;
 - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena; eta
 - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa.
- I. ERANSKINA –LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEENTZAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA JARDUKETEN BETEKIZUNAK
- II. ERANSKINA - AZKEN HARTZAILEEI ESKATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

2022ko martxoaren 11, ostirala



I. ERANSKINA –LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEENTZAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA JARDUKETEN BETEKIZUNAK

1. Programa honen aplikazioaren xedeetarako, ibilgailu kategoria⁽²⁾ eta klaseei⁽³⁾ buruzko definizio hauek hartuko dira kontuan:

⁽²⁾ (EB) 2018/858 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko maiatzaren 30ekoa, motor-ibilgailuen eta haien atoen eta ibilgailu horietarako sistema, osagai eta unitate tekniko independenteen merkatuaren homologazioari eta zaintzari buruzkoa, (EB) 715/2007 eta (EB) 595/2009 Erregelamenduak aldatzen eta 2007/46/EB Zuzentaraua indargabetzen duena (Testu egokia EEEn xedeetarako).

⁽³⁾ Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren 107. Erregelamendua.

a) **M kategoria**, nagusiki bidaiarien eta haien ekipajearen garraiorako diseinatutako eta fabrikatutako motor-ibilgailuak, honako hauek barne:

i) **M2 kategoria**: gidariarenaz gain esertzeko zortzi plazatik gora duten motor-ibilgailuak, gehienez 5 tonako gehieneko masa dutena⁽⁴⁾, motor-ibilgailu horiek zutikako bidaiarientzako tokia izan edo ez izan.

⁽⁴⁾ «Gehieneko masa» diogunean, «gehieneko masa teknikoki onargarria den kargan» ulertu behar da, 2018ko maiatzaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/858 erregelamenduan zehaztutakoa betez.

ii) **M3 kategoria**: gidariarenaz gain esertzeko zortzi plazatik gora duten motor-ibilgailuak, gehienez 5 tonako gehieneko masa dutenak, motor-ibilgailu horiek zutikako bidaiarientzako tokia izan edo ez izan.

Gidariak gain hogeita bi bidaiariko gehieneko edukiera duten M kategoriako ibilgailuen kasuan, bi ibilgailu klase bereizten dira:

– «A klasea»: zutikako bidaiarien garraiorako diseinatutako ibilgailuak; klase horretako ibilgailuak eserlekuz hornituta daude, eta zutikako bidaiariak garraiatzeko egokituta egon behar dute;

– «B klasea»: zutikako bidaiarien garraiorako diseinatuta ez dauden ibilgailuak; klase honetako ibilgailuak ez daude egokituta zutikako bidaiariak garraiatzeko;

Gidariak gain hogeita bi bidaiaritik gorako edukiera duten M kategoriako ibilgailuen kasuan, hiru ibilgailu klase bereizten dira:

– «I. klasea»: zutikako bidaiarientzako eremuz hornitutako ibilgailuak, haien leku-aldaketa sarritan ahalbidetzeko egokituak;

– «II. klasea»: nagusiki eseritako bidaiarien garraiorako diren ibilgailuak, zutikako bidaiariak pasilloan edo gehienez bi eserleku bikoitzerako aurreikusitako tokia duen eremu batean garraiatzeko diseinatuak;

– «III. klasea»: soil-soilik eseritako bidaiariak garraiatzeko diren ibilgailuak.

Gainera, ibilgailu jakin batzuk hautagarritzat jotzeko xedez, M kategoriaren barnean «zoru baxua» dutenak bereizi behar dira, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduen I. eranskinaren C ataleko 3. puntuan zehaztutakoaren arabera, hori UNren 107. Erregelamenduen 2.1.4 atalari lotzen zaiolarik, non «Zoru baxuko ibilgailua» honela definitzen den: I.; II. edo A klaseko edozein ibilgailu, zutikako bidaiarientzako erabilgarri dagoen azaleraren (edo haren aurrealdearen, ibilgailu artikulatuen kasuan, edo beheko solairuaren, bi solairuko ibilgailuetan) gutxienez % 35 eskailera-mailarik gabeko zorua den, gutxienez zerbitzu-ate baterako sarbidearekin.

a) **N kategoria**, nagusiki salgaien garraiorako diseinatutako eta fabrikatutako motor-ibilgailuak, honako hauek barne:

i) **N2 kategoria**: 3,5 tonatik 12 tonara bitarteko gehieneko masa duten motor-ibilgailuak,

ii) **N3 kategoria**: gehienez 12 tonako gehieneko masa duten motor-ibilgailuak.

2022ko martxoaren 11, ostirala



c) **04 kategoria:** O kategoriako ibilgailuak (erdiatoiak), 10 tonatik gorako gehieneko masa dutenak.

2. Laguntzen zenbatekoa eta betekizunak.

Jarduera bakoitzaren jarduketei dagozkien dirulaguntzen zenbateko unitarioak azaltzen dira jarraian, baita haien betekizunak ere:

1. jarduera: Txatar bihurtzea

Txatar bihurtzeagatiko laguntza finkoko zenbateko unitarioak azaltzen dira hurrengo taulan, ibilgailuaren kategoria eta antzinasunaren arabera, Euro emisio-estandarrari dagokionez definitua.

Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko hogeita hamar (30) ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzeko ibilgailu baten (1) muga izango dutenak.

(30) ibilgailuko muga hori indarrean egongo da Aldi Baterako Esparru Nazionalak indarrean jarraitzen duen bitartean, 983/2021 EDaren 3.15 artikuluan jasota dagoen bezala. Aldi Baterako Esparru Nazional horren indarraldia amaitzen denez geroztik, laguntza horiek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamenduaren mugak bete beharko dituzte.

Ibilgailu kategoria	Txatar bihurtzea Dirulaguntzen zenbateko unitarioa (€)		
	Ibilgailua Euro V edo EEV ⁽⁵⁾	Ibilgailua Euro IV edo Euro III	Ibilgailua Euro II edo zaharragoa
M2.	20.000	9.000	4.000
M3.	25.000	12.000	6.000
N2.	12.000	5.000	2.500
N3, 16 tonatik beherako gehieneko masarekin.	15.000	7.000	3.000
N3, 16 tonatik gorako gehieneko masarekin.	20.000	10.000	5.000

⁽⁵⁾ Ibilgailu kategoria horiei aplikatzekoa den legeria 88/77/EB Zuzentarauak sartu zuen hasiera batean, eta ondoren hori hainbat aldiz aldatu da. 2005. urtean, 2005/55/EB Zuzentarauak nabarmen aldatu zuen legeria. EURO I eta EURO II, 91/542/EB Zuzentaraua; EURO III, EURO IV eta EURO V, 1999/96/EB Zuzentaraua. EURO IVrako eta EURO Verako muga berriak 2005/55/EB Zuzentarauan. EURO VI 595/2009 Erregelamendua (eta ondorengo aldaketak).

1999/96/EB Zuzentarauak, EEV (Enhanced Environmentally Friendly Vehicles) izeneko ibilgailu ekologiko aurreratuen kontzeptu berri bat sortzeari buruzko neurriak sartzen ditu.

Jarduketa subentzionagarria izango da, aurreko taulan jasotako zenbatekoan, Espainian matrikulatutako ibilgailuak txatar bihurtzea eta zirkulaziotik behin betiko baja ematea, betiere Programa honetan zehaztutako betekizunak biltzen badituzte.

Laguntzen hartzaileak egiaztatu beharko du Espainian matrikulatutako ibilgailu bati zirkulaziorako behin betiko baja eman zaiola, txatar bihurtu beharreko ibilgailuari Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan zirkulaziorako behin betiko baja eman zaiola egiaztatzen duen ziurtagiria eta ingurumen-tratamenduari edo desegiteari buruzko ziurtagiria aurkeztuz. Laguntzen azken hartzaileak txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren titularrak ere izan behar du, gutxienez, laguntzen eskaera-dataren aurreko bi (2) urteetan; eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga behar bezala ordaindu izanaren azken ordainagiria aurkeztu beharko du.

2022ko martxoaren 11, ostirala



Txatar bihurtu beharreko ibilgailuak M2, M3, N2 edo N3 kategoriakoa izan beharko du, eta Espainian matrikulatuta egon 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen. Gainera, eta haren kategoria edozein izanik ere, txatar bihurtu beharreko ibilgailuak, 2.1 Oinarrian aipatutako garraio-baimenetako bati atxikita egon beharko du, laguntzaren eskaera-dataren aurreko bi (2) urteetan.

Ibilgailu subentzisionagarrien eroslea bada 2. jardueraren arabera (Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailu berriak erostea), txatar bihurtzeagatiko eta erosteagatiko laguntzak metatzeko aukera izango da.

2. jarduera: Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea.

Ondorengo taularen barnean hartutako zenbateko indibidualak ezarri dira laguntza finkoetarako, ibilgailuaren kategoriaren, motorizazioaren teknologiaren eta hartzaile motaren arabera.

Erabilgarri dauden funtsak behar bezala banatzeko, azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko berrogeita hamar (50) ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzeko ibilgailu baten (1) muga izango dutenak.

Azken hartzaile bakoitzeko unitateen gehieneko muga horiek igotzeko aukera izango da deialdia argitaratzen denetik 12 hilabete igarotzen direnean, erabilgarri dauden funtsak eta enpresak jasotako eskaera kopurua ikusirik, baina 651/2014 Erregelamenduan ezarritako betekizun eta mugak bete beharko dira betiere, ingurumenaren babesean inbertitzeko laguntzei lotutako jakinarazpen-atalaseei dagokienez.

Ibilgailu kategoria eta klasea	Onuradun mota	Ibilgailuak erostea Dirulaguntzaren zenbateko unitarioa (€) teknologiaren arabera				
		Hibrido Siplea (HEV)	Hibrido Entxufagarria (PHEV) edo REEV	Gasa: GNK, GNL	Elektrikoa (BEV)	Hidrogenoa (FCV, FCHV)
M. A klasea.	Autonomoa eta enpresa txikia.	25.000 ¹	30.000	25.000 ¹	65.000	65.000
	Enpresa ertaina.	20.000 ¹	25.000	20.000 ¹	55.000	55.000
	Enpresa handia	15.000 ¹	20.000	15.000 ¹	45.000	45.000
M. B klasea.	Autonomoa eta enpresa txikia.	35.000	45.000	35.000	130.000	130.000
	Enpresa ertaina.	30.000	40.000	30.000	110.000	110.000
	Enpresa handia	25.000	35.000	25.000	90.000	90.000
M. I. klasea (gehieneko luzera: 15m).	Autonomoa eta enpresa txikia.	50.000 ¹	60.000	22.000 ¹	170.000	170.000
	Enpresa ertaina.	40.000 ¹	50.000	18.000 ¹	145.000	145.000
	Enpresa handia	30.000 ¹	40.000	14.000 ¹	120.000	120.000
M. I. klasea (gehieneko luzera: 15m).	Autonomoa eta enpresa txikia.	60.000 ¹	70.000	25.000 ¹	200.000	200.000
	Enpresa ertaina.	50.000 ¹	60.000	20.000 ¹	175.000	175.000
	Enpresa handia	40.000 ¹	50.000	15.000 ¹	150.000	150.000
M. II. klasea:	Autonomoa eta enpresa txikia.	60.000 ¹	70.000	50.000 ¹	180.000	180.000

2022ko martxoaren 11, ostirala



Ibilgailu kategoria eta klasea	Onuradun mota	Ibilgailuak erostea Dirulaguntzaren zenbateko unitarioa (€) teknologiaren arabera				
		Hibrido Simplea (HEV)	Hibrido Entxufagarria (PHEV) edo REEV	Gasa: GNK, GNL	Elektrikoa (BEV)	Hidrogenoa (FCV, FCHV)
	Enpresa ertaina.	50.000 ¹	60.000	40.000 ¹	155.000	155.000
	Enpresa handia	40.000 ¹	50.000	30.000 ¹	130.000	130.000
	Autonomoa eta enpresa txikia.	30.000	40.000	30.000	180.000	180.000
M. III. klasea:	Ertaina.	25.000	35.000	25.000	155.000	155.000
	Enpresa handia	20.000	30.000	20.000	130.000	130.000
N2, 3,5 tonatik 5 tonara bitarteko gehieneko masarekin.	Autonomoa eta enpresa txikia.	3.500 ²	15.000	-	25.000	25.000
	Enpresa ertaina.	3.000 ²	12.500	-	20.000	20.000
	Enpresa handia	2.500 ²	10.000	-	15.000	15.000
N2, 5 tonatik 8 tonara bitarteko gehieneko masarekin.	Autonomoa eta enpresa txikia.	7.000 ²	30.000	-	60.000	60.000
	Enpresa ertaina.	6.000 ²	25.000	-	50.000	50.000
	Enpresa handia.	5.000 ²	20.000	-	40.000	40.000
N2, 8 tonatik 12 tonara bitarteko gehieneko masarekin.	Autonomoa eta enpresa txikia.	15.000 ²	90.000	-	130.000	130.000
	Enpresa ertaina.	12.500 ²	75.000	-	110.000	110.000
	Enpresa handia.	10.000 ²	60.000	-	90.000	90.000
N3, 16 tonara arteko gehieneko masarekin.	Autonomoa eta enpresa txikia.	25.000 ²	100.000	-	170.000	170.000
	Enpresa ertaina.	20.000 ²	85.000	-	145.000	145.000
	Enpresa handia.	15.000 ²	70.000	-	120.000	120.000

¹ M kategoriako ibilgailu hibridoetarako edo gas bidezko ibilgailuetarako ezarritako laguntzetatik kanpo uzten dira «zoru baxuko» definizioaren barnean hartutako ibilgailuak, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. Eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera.

² N kategoriako ibilgailu hibridoetarako ezarritako laguntzak, emisio gutxiko ibilgailuen erosketari dagozkien soilik, (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren 3. (12) artikularen definizioaren arabera⁽⁶⁾.

⁽⁶⁾ «Emisio gutxiko ibilgailu astuna»: emisiorik gabeko ibilgailu astuna ez den ibilgailu astuna, ibilgailu astunari dagokion ibilgailu azpitaldeko ibilgailu guztien erreferentziazko CO₂ emisioen erdia baino CO₂ emisio espezifiko gutxiago daukana, (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren I. eranskinaren 2.3.3 puntuaren arabera zehaztutakoari jarraikiz. Hortaz, ibilgailu subentzionagarriek Erregelamendu horren aplikazio-eremuaren barnean hartuta egon behar dute, eta «emisio gutxiko ibilgailu astunaren» definizioa bete behar dute.

2022ko martxoaren 11, ostirala



Ibilgailu kategoria eta klasea	Onuradun mota	Ibilgailuak erostea Dirulaguntzaren zenbateko unitarioa (€) teknologiaren arabera				
		Hibrido Sinplea (HEV)	Hibrido Entxufagarria (PHEV) edo REEV	Gasa: GNK, GNL	Elektrikoa (BEV)	Hidrogenoa (FCV, FCHV)
N3, 16 tonatik gorako gehieneko masarekin.	Autonomia eta enpresa txikia.	25.000 ²	100.000	-	190.000	190.000
	Enpresa ertaina.	20.000 ²	85.000	-	160.000	160.000
	Enpresa handia.	15.000 ²	70.000	-	130.000	130.000

² N kategoriako ibilgailu hibridoetarako ezarritako laguntzak, emisio gutxiko ibilgailuen erosketari dagozkie soilik, (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren 3. (12) artikulua eraberrituaren arabera⁽⁶⁾.

⁽⁶⁾ «Emisio gutxiko ibilgailu astuna»: emisiorik gabeko ibilgailu astuna ez den ibilgailu astuna, ibilgailu astunari dagokion ibilgailu azpitaldeko ibilgailu guztien erreferentziak CO_2 emisioen erdia baino CO_2 emisio espezifiko gutxiago dauzkana, (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren I. eranskinaren 2.3.3 puntuaren arabera zehaztutakoari jarraikiz. Hortaz, ibilgailu subentzionarioen Erregelamendu horren aplikazio-eremuaren barnean hartuta egon behar dute, eta «emisio gutxiko ibilgailu astunaren» definizioa bete behar dute.

Laguntza-zenbatekoak aplikatzeko, ETEak izango dira Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako definizioarekin bat datozen enpresak.

Enpresa kategoria	Langile kopurua	Negoio bolumena	Balantze orokorra
Ertaina.	< 250	≤ 50 milioi EUR	≤ 43 milioi EUR
Txikia.	<50	≤ 10 milioi EUR	≤ 10 milioi EUR

Laguntzaren azken hartzailearen izenean Espainian lehen aldiz matrikulatutako ibilgailu berriak zuzenean erostea edo leasing finantzarioko finantzaketa-eragiketen edo renting bidezko errentamenduaren bidez eskuratzea (leasing operatiboa) jarduketara subentzionarioak izango da. Renting kasuetan, ibilgailuaren renting enpresaren izenean matrikulatuta egoteko aukera ere izango da. Gainera, salerosketa-fakturaren data eta matrikulazio-data laguntza-eskaeraren erregistro-datararen ondorengoak izango dira. Ibilgailuaren prezioaren ordainketa, kontura edo beste edozein kontzepturen pean ordain litezkeen kopuruak barne, eskaeraren erregistro-datararen ondoko data batean egin beharko da.

Subentzionarioak izango da, halaber, N2, N3, M2 edo M3 kategorietako ibilgailu elektrikoak (BEV), hibrido entxufagarriak (PHEV), autonomia hedatutako ibilgailu elektrikoak (REEV) edo erregai-zelulak dituztenen erosketa, baldin eta gehienek hamabost (15) hilabeteko antzintasuna badute lehen matrikulaziotik laguntza-eskaeraren erregistro-dataraino zenbatuta, haren titularra, laguntzaren azken hartzaileari ibilgailua saldu dion fabrikatzailea/inportatzailea, saltokia edo kontzesionarioa izango delarik.

Ibilgailu subentzionarioak «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa bete behar dute, EBren taxonomiari buruzko Erregelamenduaren 17. artikuluari jarraikiz (2020/852 Erregelamendua). Hala, ibilgailu subentzionarioak guztiek emisioei buruzko Europako araudi berriena bete behar dute beti, gaur egun, Euro VI step E (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 595/2009 Erregelamendua eta ondorengo aldaketak). Gainera, «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipio horren arabera, ezinezkoa da ibilgailu jakin batzuk erosteko dirulaguntzak eskaintzea, haien teknologiaren eta ezaugarri funtzionalen arabera.

Ibilgailu subentzionarioak M2, M3, N2 edo N3 kategorietakoak izan behar dute, eta jarraian zehaztutako teknologietako bat txertatu behar dute, kasuan kasu ezartzen diren betekizunak betetzeaz gainera:

2022ko martxoaren 11, ostirala



i. Gas natural konprimitu (GNK) edo gas natural likidotu (GNL) gisa homologatutako erregai fosil alternatiboak erabil ditzaketen barne-errekuntzako motorrek propulsatutako ibilgailuak, honako zehaztasun hauen arabera:

i.a) «Kalte esanguratsurik ez eragitearen» eta karbono gutxiko soluzioak sustatzearen printzipioa betez, N eta M kategorietako gas-ibilgailuetarako ezartzen diren laguntzak erabili ahalko dira, soil-soilik, biometano bidezko edo beste gas berriztagarri baten bidezko funtzionamendurako⁽⁷⁾. 983/2021 EDaren lehen Xedapen Gehigarrian jasotako ministro-aginduan ezarritakoa bete beharko dute laguntza horiek.

⁽⁷⁾ *Biometano berriztagarriak jasagarritasunari eta emisioen murrizketari buruzko betekizunak bete beharko ditu, iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/2001 Zuzentarauari jarraikiz (RED II).*

i.b) Nolanahi ere, aldi baterako, 983/2021 EDaren xedapen iragankor bakoitzean jasotzen denez, M kategoriako gas-ibilgailuetarako (GNK, GNL) ezarritako laguntzak eman ahalko dira, «zoru baxuko» ibilgailuak alde batera utzita, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. eranskineko C ataleko 3. puntuan zehaztutakoaren arabera, 2023ko abenduaren 31ra arte, aurreko paragrafoan adierazitakoa bete beharrik gabe.

ii. Ibilgailu elektriko puruak (BEV), guztiz eta soilik motor elektrikoek bitartez propulsatutako, energiaren zati bat edo energia osoa beren baterien elektrizitatetik lortzen dutenak, kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia darabiltenak, sare elektrikoak adibidez.

iii. Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV), guztiz eta soilik motor elektrikoek bitartez propulsatutako, energiaren zati bat edo energia osoa beren baterien elektrizitatetik lortzen dutenak, kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia darabiltenak, eta, bateriak modu osagarrian kargatzeko, gasolina edo gasolio bidezko barne-errekuntzako motor bat daukatenak.

iv. Ibilgailu hibrido entxufagarriak (HEV) dira, beren propulzio mekanikorako, energia ibilgailuan instalatutako energiako/potentzia elektriko metatuko bi iturri hauetatik hartzen dutenak: erregai kontsumigarri bat (esaterako, gasolina, gasolio edo gasa), eta energia/potentzia elektrikoak biltegiratzeko sistema bat, ibilgailutik kanpoko iturri baten bitartez kargatu beharrik gabe. Nolanahi ere, oinarri hauek aplikazioan halakotzat jo ahal izateko, ibilgailuak ibilgailu elektriko hibrido gisa definituta ageri beharko du bere dokumentazio teknikoan.

iv.a «Zoru baxuko» definizioaren barnean hartutako M kategoriako ibilgailu hibridoak, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. Eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera, epigrafe honetako laguntzetatik kanpo uzten dira.

iv.b Bestetik, «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioak ezartzen duenez, N kategoriako ibilgailu hibridoetarako ezarritako laguntzak, emisio gutxiko⁽⁸⁾ ibilgailuen erosketari dagozkien soilik, (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren 3. (12) artikuluko definizioaren arabera. Hortaz, ibilgailu subentzionagarriak Erregelamendu horren aplikazio-eremuaren barnean hartu behar dira, eta «emisio gutxiko ibilgailu astunaren» definizioa bete behar dute.

⁽⁸⁾ *«emisio gutxiko ibilgailu astuna»: emisiorik gabeko ibilgailu astuna ez den ibilgailu astuna, ibilgailu astunari dagokion ibilgailu azpitaldeko ibilgailu guztien erreferentziako CO₂ emisioen erdia baino CO₂ emisio espezifikoko gutxiago daukana, (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren I. eranskinean 2.3.3 puntuaren arabera zehaztutakoari jarraikiz.*

v. Ibilgailu hibrido «entxufagarriak» (PHEV), guztiz edo partzialki gasolina edo gasolio bidezko barne-errekuntzako motorren zein motor elektrikoek bitartez propulsatutako, energiaren zati bat edo energia osoa beren baterien elektrizitatetik lortzen dutenak, kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia darabiltenak, sare elektrikoak adibidez. Kanpoko energia-iturri batetik kargatutako bateriekin elikatu beharko da motor elektrikoak.

vi. Erregai-zelulen bidezko ibilgailu elektrikoak (FCV): Ibilgailu elektrikoak, soil-soilik, hidrogeno ontziratuak erregai-pila baten energia elektrikoak erabiltzen duena.

2022ko martxoaren 11, ostirala



vii. Erregai-zelulen bidezko ibilgailu elektriko hibridoa (FCHV): Erregai-zelulen bidezko ibilgailu elektrikoa, bateria elektriko kargagarriak ere biltzen dituena.

Renting bidezko finantzaketa-eragiketen bitarteko ibilgailuen eskuratzeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte laguntza jasotzeko:

a) Dagokion errentamendu-kontratuak, gutxienez, bi urteko iraupena ezartzea indarrean hasten denez geroztik, eta haren formalizazioa, betiere, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengoa izatea.

b) Laguntza-eskaeraren tramitazioa kudeatu ahal da laguntzaren azken hartzailearen edo hark behar bezala akreditatutako ordezkariaren eskutik.

b) Errentamendu-kontratuak espresuki adierazi beharko du errentaria dela ematen den laguntzaren azken hartzailea, eta adierazi beharko du espresuki, halaber, renting enpresak, laguntzaren zenbatekoaren ordainketa jasotzen duen egunean bertan, laguntza horren zenbateko osoa baliatuko duela errentariak ordaintzeke daukan ordainketa-kuotak edo errentamenduko errenta murrizteko.

d) Kontratuak adieraziko du, ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina azken hartzaileari ordaindu beharko zaiola renting konpainiaren eskutik, errentamendu-kontratua amaitzean. Horrenbestez, errentariak, laguntzaren azken hartzailea den heinean, Programa honetan aurreikusitako betekizun eta bateraezintasunak bete beharko ditu.

e) Leasing edo renting bidezko finantzaketa-eragiketen bitarteko ibilgailuen eskuratzeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte laguntza jasotzeko:

e.1) Dagokion leasing edo renting kontratuak, gutxienez, bi urteko iraupena ezartzea indarrean hasten denez geroztik, eta haren formalizazioa, betiere, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengoa izatea.

e.2) Leasing edo renting kontratuak espresuki adierazi beharko du errentaria dela ematen den laguntzaren azken hartzailea, eta adierazi beharko du espresuki, halaber, leasing edo renting enpresak, laguntzaren zenbatekoaren ordainketa jasotzen duen egunean bertan, laguntza horren zenbateko osoa baliatuko duela errentariak ordaintzeke daukan ordainketa-kuotak edo errentamenduko errenta murrizteko, edo bestela, ordaintzeke dagoen printzipala murrizteko laguntza jasotzen den uneaz geroztik, errentariak hautatutako aukeraren arabera.

e.3) Kontratuak adieraziko du, ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina azken hartzaileari ordaindu beharko zaiola leasing edo renting konpainiaren eskutik, errentamendu-kontratua amaitzean.

Errentariak, laguntzaren azken hartzailea den heinean, oinarri hauetan aurreikusitako betekizun eta bateraezintasunak bete beharko ditu.

e.4) Leasing edo renting eragiketetan, kasu guztietan, laguntza tramitatzen duena edozein izanik ere, laguntzaren azken hartzaileak dokumentu bat sinatuko du, kobratzeko eskubidea eragiketa formalizatzen duen leasing edo renting konpainiari lagatzen diola aditzera emateko.

3. jarduera - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propulzio modua aldatzea

Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko berrogeita hamar (50) ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzeko ibilgailu baten muga izango dutenak.

2022ko martxoaren 11, ostirala



«Retrofit»-erako edo ibilgailuen propulzio modua aldatzeko zenbateko unitarioak ezartzen dira, ondorengo taularen barnean hartu direnak.

Ibilgailu kategoria	Retrofit-a Dirulaguntzaren zenbateko unitarioa (€)	
	Eraldatzea ibilgailuaren propulsioko energia primarioa, % 100ean, elektrizitatea edo hidrogenoa izan dadin (BEV, FCV edo FCHV)	Eraldatzea ibilgailuak, bete-betean, gas-ibilgailu gisa funtziona dezan (GNK edo GNL), betiere Euro VI-E estandarra betetzen badu
M2	18.000	6.000
M3	20.000	7.000
N2	18.000	—
N3	20.000	—

Espainian matrikulatutako ibilgailuen teknologia edo propulzio-sistema aldatzea edo «retrofitting»-a jarduketan subentzagarria izango da, aurreko taulan jasotako zenbatekoan, betiere Programa honetan zehaztutako betekizunak betetzen baditu.

Programa honen xedeetarako, «retrofit» gisa ulertzen da Espainian matrikulatutako N2, N3, M2 edo M3 kategorietako ibilgailu baten potentzia-unitatea aldatzea, % 100ean diesel-, gasolina- edo gas-erregaien bidez (GNK, GNL, GLP) propulsiatua izatetik, bete-betean ibilgailu elektriko edo hidrogeno-ibilgailu gisa funtzionatzera igaro dadin (hau da, BEVra, FCVra edo FCHVra bihurtzea).

Jatorriz % 100ean diesel- edo gasolina-erregaien bidez propulsiatzen diren M2 eta M3 kategorietako ibilgailuen propulzio modua —bete-betean gas-ibilgailu gisa funtzionatzera igaro daitezkeen (GNK edo GNL)— aldatzeko laguntzek, biometanoaren edo beste gas berriztagarri batzuen erabilerrari lotuta egon behar dute, 983/2021 EDaren lehen xedapen gehigarrian jasotzen denez. Gainera, eraldatutako ibilgailuak bete behar ditu, betiere, ibilgailu astunetarako emisio kutsatzaileen gaineko azken estandarrak (EURO VI-E).

Aldi baterako, 2023ko abenduaren 31ra arte, jatorriz % 100ean diesel- edo gasolina-erregaien bidez propulsiatzen diren M2 eta M3 kategorietako ibilgailuen —bete-betean gas-ibilgailu gisa funtzionatzera igaro daitezkeen (GNK edo GNL)— propulzio modua aldatzeko laguntzak barne hartzen dira, betiere ibilgailu astunetarako emisio kutsatzaileen azken estandarrak betetzen badituzte (EURO VI-E), aurreko paragrafoan aipatutako betekizuna bete beharrik gabe. Behin-behineko aldi horretan kanpo uzten dira, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera «zoru baxuko» definizioaren barnean hartutako M kategoriako ibilgailuak.

Laguntzaren hartzaileak izan beharko du aldatu beharreko ibilgailuaren titularra, eta jatorrizko ibilgailuak gutxienez hamar (10) urteko antzinatasuna izan beharko du, lehen matrikulazioaz geroztik. Bi denboraldiak zenbatuko dira eskaera programa honi dagokion deialdian erregistratzen den data arte.

Ibilgailuko potentzia-unitatearen gaineko aldaketa egin beharko da, betiere, ibilgailuak berritzeko tramitazioa arautzen duen uztailaren 2ko 866/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa betez.

4. jarduera: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea

Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko sistemetarako laguntza finkoko zenbateko unitarioak ezartzen dira, guztiz instalatutako eta N2, N3, M2 edo M3 ibilgailu astunek erabiltzeko sarbideaz hornitutako kargatze-puntu bakoitzeko, ondorengo taularen barnean hartzen direnak potentziaren arabera.

2022ko martxoaren 11, ostirala



Kargatze-puntuaren potentzia	Dirulaguntzaren zenbateko unitarioa (€)
Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko puntua, guztiz instalatua eta ibilgailu astunetarako sarbidearekin, eta 50 kW-tik 100 kW-ra bitarteko potentziarekin.	10.000
Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko puntua, guztiz instalatua eta ibilgailu astunetarako sarbidearekin, eta 100 kW-tik 150 kW-ra bitarteko potentziarekin.	25.000
Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko puntua, guztiz instalatua eta ibilgailu astunetarako sarbidearekin, eta 150 kW-tik 350 kW-ra bitarteko potentziarekin.	40.000
Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko puntua, guztiz instalatua eta ibilgailu astunetarako sarbidearekin, eta 350 kW-ko edo hortik gorako potentziarekin.	70.000

Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko sistemak, zuzenean erosteko modalitatean, jarduketa subentzionagarriak izango dira, aurreko taulan jasotako zenbatekoan, betiere Errege Dekretu honetan zehaztutako betekizunak betetzen badituzte. Nolanahi ere, 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamendua betez, laguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu zehaztutako fakturen bitartez justifikatzen diren kostu subentzionagarri guztien % 40a, III. eranskinean ezarritakoaren arabera. Muga hori portzentajezko 10 puntuan gehitu ahal izango da enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan eta portzentajezko 20 puntuan, aldez, laguntzak enpresa txikiei eta autonomoei bideratuta badaude.

N2, N3, M2 edo M3 kategorietako ibilgailu elektrikoa (BEV), hibrido entxufagarria (PHEV) edo autonomia hedatukoa (REEV) zuzenean erosteko edo leasing finantzario zein errentamenduko finantzaketa-eragiketen bitartez eskuratzeko laguntza-eskaera aldi berean, edo aldez aurretik deialdi berean, aurkeztu izanaren betekizuna bete beharko da. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzeko laguntzak eskatu ahalko dira, halaber, bete-betean ibilgailu elektriko (BEV) gisa funtzionatzearren ibilgailuaren propulzio modua eraldatzeko laguntza-eskaera aurkeztu bada aldi berean, edo aldez aurretik deialdi berean. Laguntzarik ezin izango da eskatu konexio-puntuaren kopurua handiagoa bada zehaztutako motako ibilgailuak erosi edo eraldatzeko laguntza kopurua baino. Gainera, kargatze-azpiegiturak ezartzeko laguntza bakoitza ematearren, ibilgailu elektrikoa erosteko edo ibilgailu elektrikora eraldatzeko laguntza bat edo gehiago eman beharko dira aldez aurretik.

Kargatze-azpiegiturak jendearentzat eskuragarri egon ahalko dira. Kasu horretan, erabiltzaileei sarbide ez-diskriminatzailea ere eman beharko diete, baita tarifei, autentifikazio eta ordainketa metodoei eta bestelako erabilera-baldintzei dagokienez ere.

Kargatze-sistemek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Kalitate eta segurtasun industrialaren alorrean aplikatzekoa den araudia betetzea.
- Zehazkiago, behe-tentsioko sareari konektatutako kargatze-puntuaren azpiegiturak, abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar du; horren bitartez, abenduaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onartutako behe-tentsioko Erregelamendu elektroteknikoaren «Xede bereizetarako instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura» (ITC) BT 52 Jarraibide Tekniko Osagarri berria onartzen da, eta haren beste jarraibide tekniko osagarri batzuk aldatzen dira, abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretu horren azken xedapenen artean bederatzigarrean ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Elikadura: monofasikoa edo trifasikoa 230-400 VAC.
- Babes elektrikoak segurtasun-araudiaren arabera.
- CE deklarazioa.
- Kargatze-azpiegiturak jendearentzat eskuragarri egon ahalko dira. Kasu horretan, erabiltzaileei sarbide ez-diskriminatzailea ere eman beharko diete, baita tarifei, autentifikazio eta ordainketa metodoei

2022ko martxoaren 11, ostirala



eta bestelako erabilera-baldintzei dagokienez ere, (EB) 651/2014 Erregelamendua aldatzen duen 2021eko uztailaren 23ko Batzordearen (EB) 2021/1237 Erregelamendua sartutako 36 bis artikuluari jarraikiz, zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

g) Sarbide publikoko kargatze-kasurako, honako hauek eduki beharko ditu gutxienez: 2 motako konektorea IEC 62.196-2 arauaren arabera, edo CCS2- Combo 2 konektorea, IEC 62196 arauaren arabera, 3 moduko edo 4 moduko bateragarritasunarekin instalazioaren arabera, eta energia-neurri integratuarekin. Abenduaren 9ko 639/2016 Errege Dekretuko 4. artikulua arabera, ibilgailu elektrikoen erabiltzaileei kargatze puntualak egiteko aukera emango die, dagokion kargatze-puntuko operadorearekin kontraturik tartean izan gabe, kargatze-zerbitzua erabiltzaile interesdunen eskura jarri diskriminaziorik gabeko modu ireki eta garden batean. Horrez gain, honako konektibitate-baldintza hauek bete beharko ditu:

– Instalazioak erabateko konektibitatea ahalbidetzen dion konexio-interfazea eta gutxienez bi hilabeteko operazioko datuen toki-biltegiratzeko memoria-sistema duela egiaztatzea.

OCPP v1.6 protokoloarekin edo bertsio berriago batekin bateragarria, web zerbitzuak erabiliz (SOA); eta bertsio berriagoetara eguneratzeko modukoa.

– Erabiltzailearen toki-identifikazioa RFID kontaktu-txartelaren bitartez I^aO 14443Aren arabera, edo identifikazio-sistema baliokide baten bitartez.

– Transferitutako energiaren eta potentziaren neurria.

– 3G/GPRS komunikazio mugikorrek modulua edo berriagoa, edo edozein komunikazio-kanal baliokidea.

h) Potentziaren arabera, kargatze-sistemak honela sailkatuko dira:

i. Kargatze azkarreko sistema: gutxienez 50 kW-ko eta gehienez 100 kW-ko potentzia.

ii. Kargatze ultraazkarreko sistema: 100 kW-ko edo hortik gorako potentzia. Kargatze-sistema batean potentzia desberdinak bilduko balira, instalazioko kargatze-puntuen gehieneko potentziaren arabera sailkatuko litzateke sistema.

i) Kargatze-puntuak instalatzeko neurrietan eta ingurunearen gaineko okupazio-obra bat dakarten beste jarduketa batzuetan, 21/2013 Legea beteko da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari dagokionez, eta 21/2013 Legea aldatzen duen abenduaren 5eko 9/2018 Legea, ingurumenaren babesa ziurtatzeko behar diren arintze-neurriak aplikatuz. Kasu horietan, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoaren prebentzioarekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatuko dira, eta 2000/60/EB (Uraren esparru-zuzentaraua), 2008/56/EB (Itsas estrategiaren gaineko esparru-zuzentaraua) eta lur azpiko urak kutsaduratik eta narriaduratik babesteari buruzko 2006/118/EB Zuzentarauetan jasotako betekizunak bete behar dira.

5. jarduera: Trenbide-autobideetan erabiltzeko erdiatoiak erostea.

Trenbide-autobideetan erabiltzeko moduko erdiatoiak erosteko 1.000 euroko laguntza finkoko zenbateko unitario bat ezartzen da, jarraian adierazitako baldintza eta betekizunen arabera. Nolanahi ere, azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko hogeita hamar (30) ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzeko ibilgailu baten (1) muga izango dutenak.

Laguntzaren azken hartzailearen izenean Espainian lehen aldiz matrikulatutako erdiatoiak zuzenean erostea edo leasing (finantza-errentamendua) edo renting (errentamendu operatiboa) bidezko finantzaketa-eragiketen bidez eskuratzea jarduketa subentzionagarria izango da. Renting kasuetan, aldiz, ibilgailua renting enpresaren izenean matrikulatuta egoteko aukera ere izango da.

Leasing edo renting bidezko finantzaketa-eragiketen bitarteko eskuratzeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte laguntza jasotzeko:

2022ko martxoaren 11, ostirala



a) Dagokion leasing edo renting kontratuak, gutxienez, bi urteko iraupena ezartzea indarrean hasten denez geroztik, eta haren formalizazioa, betiere, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengoa izatea.

b) Leasing edo renting kontratuak espresuki adierazi beharko du errentaria dela ematen den laguntzaren azken hartzailea, eta adierazi beharko du espresuki, halaber, leasing edo renting enpresak, laguntzaren zenbatekoaren ordainketa jasotzen duen egunean bertan, laguntza horren zenbateko osoa baliatuko duela errentariak ordaintzeke dauzkan ordainketa-kuotak edo errentamenduko errenta murrizteko, edo bestela, ordaintzeke dagoen printzipala murrizteko laguntza jasotzen den uneaz geroztik, errentariak hautatutako aukeraren arabera.

c) Kontratuak adieraziko du, ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina azken hartzaileari ordaindu beharko zaiola leasing edo renting konpainiaren eskutik, errentamendu-kontratua amaitzean.

Errentariak, laguntzaren azken hartzailea den heinean, Errege Dekretu honetan aurreikusitako betekizun eta bateraezintasunak bete beharko ditu.

d) Leasing edo renting eragiketetan, kasu guztietan, laguntza tramitatzen duena edozein izanik ere, laguntzaren azken hartzaileak dokumentu bat sinatuko du, kobratzeko eskubidea eragiketa formalizatzen duen leasing edo renting konpainiari lagatzen diola aditzera emateko.

Gainera, salerosketa-fakturaren data eta matrikulazio-data laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengoak izango dira. Ibilgailuaren prezioaren ordainketa, kontura edo beste edozein kontzepturen pean ordain litezkeen kopuruak barne, eskaeraren erregistro-dataren ondoko data batean egin beharko da.

Laguntzak jaso ditzaketen erdiatoiek honako betekizun bete beharko dituzte:

a) O4 kategoriakoak izatea: O kategoriako ibilgailuak (erdiatoiak), 10 tonatik gorako gehieneko masa dutenak.

b) Huckepak sistema eduki beharko dute, eta honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

– Bagoien gaineko errepide-ibilgailuen garraioari buruzko UIC 596-5 arauaren arabera fabrikatuta egotea. Antolamendu teknikoa. Bagoien gaineko P kodea edo N kodea duten erdiatoien garraioa.

– Bagoien gaineko errepide-ibilgailuen garraioari buruzko UIC 596-6 arauaren arabera kodifikatuta egotea. Antolamendu teknikoa. Garraio konbinatuan eta garraio konbinatuko lineetan kargatze-unitateak kodetzeko baldintzak edo UNE EN 13044-3 araua: Kargatze-unitate intermodalak. Markaketa. 3. zatia. Trenbideetan erabilitako erdiatoien markaketak.

– ILU-CODE bat edukitzea, UNE-EN 13044-1 arauaren arabera Kargatze-unitate inermodalak. Markaketa. 1. zatia: Identifikazio-markaketak.

2022ko martxoaren 11, ostirala



II. ERANSKINA - AZKEN HARTZAILEEI ESKATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa

a) Establezimenduko pertsona fisiko titularraren NANaren (edo atzerriko herritarren nortasuna egiaztatzen eta AIZ jasotzen duen dokumentu baliokidearen). Horri dagokionez, azken hartzaileak, laguntza-eskaera aurkeztean, baimena emango die bai administrazio-organo emaileari bai instrukzio-egileari, informazio hori zuzenean kontsultatu ahal izan dezaten. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen inplizitu hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatutako agiria aurkeztu beharko du, betiere 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Identifikazio fiskaleko txartela aurkeztu beharko da, eta bertan pertsona juridikoaren IFZ agertu beharko da, bai eta interesdunaren ordezkariaren NANA ere.

b) Eskatzaileek, aurreko atalean ezarritakoaz gainera, laguntza-eskaera egiten duen pertsonaren ordezkatzeko eskumenen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte, haien ordezkariak diren heinean, hala badagokio, dagozkion erregistro publikoetan behar bezala inskribatuak. Esaterako, ahalordetze-eskrituraren edo ordezkaritza-egiaztagiriaren kopia.

c) Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten onuradunek Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan izena eman dutela egiaztatuko dute edo Foru Zerga Administrazioak emandako Errolda Egoerako Ziurtagiria aurkeztuko dute, non laguntzaren eskaera-datan benetan garatutako jarduera ekonomikoa islatu behar den. Horri dagokionez, azken hartzaileak, laguntza-eskaera aurkeztean, baimena emango die bai administrazio-organo emaileari bai instrukzio-egileari, informazio hori zuzenean kontsultatu ahal izan dezaten. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen inplizitu hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatutako agiria aurkeztu beharko du, betiere 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

d) Enpresen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa txikia, ertaina edo handia dela adieraziko den, edo, hala badagokio, merkataritza-jarduera komertzialik gabeko erakunde bat dela.

Eskatzaileak enpresak badira EB 651/2014 Erregelamenduaren arabera (jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisikoak alde batera utzita), erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa txikia, ertaina edo handia dela adieraziko den, 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskinean jasotako definizioaren arabera, edo, hala badagokio, merkatan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gabeko erakunde bat dela.

Horrez gain, enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskineko 2. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- ✓ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
- ✓ Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa, administrazio publikoek emandako dirulaguntza bat lortzeko.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18 eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpenak edo dokumentuak aurkezteko betebeharra bete behar ez badute, salbuespen horren funtsa adierazi beharko da espresuki, Erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoa betetz. Aitzitik, adierazpen edo dokumentu horiek nahitaez aurkezteko salbuespenik ez badago, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Erregelamendu horren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2022ko martxoaren 11, ostirala



Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lor dezan uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiria aurkeztu beharko du.

f) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zerrendatutako zirkunstantzietako batean ere ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena, eta bereziki, dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketan egunean dagoela, krisi-egoeraren batean ez dagoela, eta, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduari jarraikiz, Batzordeak legez kontrako laguntza bateraezin bat jo izanagatik berreskuratze-agindu baten eraginpean ez dagoela dioena.

g) Laguntza-programa honen testuinguruan eskatutako jarduketa edo helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik ez duela eskatu edo jaso dioen erantzukizunpeko adierazpena, edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren laguntzak izanik ere, estatukoak edo nazioartekoak.

Horrez gain, EB 651/2014 Erregelamenduaren kategorien arabera salbuespenei buruzko erregelamendu orokorraren mendeko jarduketetarako programa honen deialdi autonomikoetan egindako eskaeren guztizkoan, 150 milioi euroko kopurua ez dela gainditu adieraziko da.

Aldi Baterako Esparruaren aplikazioaren eraginpeko 1. jarduerarako (txatar bihurtzea) laguntzetarako, Aldi Baterako Esparru horren mendean egonik hura onartu zenez geroztik eskatu edo jaso diren laguntza guztiak deklaratu dira. Horrez gain, horrelako laguntzetarako deklaratu dira azken hiru urteetan eskatutako edo jasotako *minimis* Erregelamenduaren eraginpeko laguntza guztiak.

h) Europako Batzordeak, OLAFek, Europako Kontu Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta eskumeneko agintari nazionalak beren eskumenak betetzen dituztela bermatzeko behar diren eskubide eta sarbideak ematea bere gain hartzeko adierazpena.

i) Inplikaturako administrazio publikoen arteko datu-lagapena onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritz

j) Laguntza-eskaerari lotutako jarduerari buruzko dokumentazioa:

a. 1. jarduerarako:

- Memoria, gutxienez, honako hauek zehaztuz: laguntzaren xede diren txatar bihurtu beharreko ibilgailuen marka, izen komertziala, bastidore-zenbakia eta matrikula, kategoria eta motorizazioa, eta ibilgailu bakoitzerako eskatutako laguntzaren zenbatekoa.
- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, non lehen matrikulazioaren data, Espainiako matrikulazio-data eta emate-data adieraziko diren. Dokumentu horietako edozeinen faltan, ibilgailuaren historialaren berri ematen duen Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren txostena aurkeztuko da.
- Behar bezala ordaindutako txatar bihurtutako ibilgailuaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainagiriaren kopia.
- Ibilgailuaren IAT txartelaren (fitxa teknikoa) kopia aurkeztu beharko da, eta bertan txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren Euro araudia jasoko da. IAT txartelean (fitxa teknikoa) jasota ez badago edo eskatzaileak ezin badu egiaztatu, ibilgailuaren Euro kategoria ibilgailuaren fabrikazio-datan baimendutako txikiena dela hartuko da kontuan.

2022ko martxoaren 11, ostirala



- Laguntzaren azken hartzaileak, gutxienez laguntzaren eskaera-dataren aurreko bi (2) urteetan, txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren titularra dela adierazten duen egiaztagiraren kopia.
- b. 2. jarduerarako:
 - Memoria, gutxienez, erosi nahi diren ibilgailuen marka, izen komertziala, kategoria eta motorizazioa, eta ibilgailu bakoitzerako eskatutako laguntzaren zenbatekoa zehaztuta. M kategoriako ibilgailu hibridoetan, klasea ere adieraziko da, baita erosi beharreko ibilgailua «zoru baxuko» definizioaren barnean hartuta dagoen edo ez, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. Eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera. N kategoriako ibilgailu elektriko hibridoak erosit gero (HEV), eskatzaileak berretsiko du badakiela erosi beharreko ibilgailuak 2019ko ekainaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren aplikazio-eremuaren barruan egon behar duela, eta, horrez gain, emisio gutxiko ibilgailuaren definizioa bete behar duela, Erregelamendu horren 3. (12) artikuluaaren definizioaren arabera, erosketaren ostean ibilgailuaren fabrikatzaileak hori egiaztatzeke emandako ziurtagiria aurkeztu beharko delarik.
 - Egin beharreko jarduketaren aurrekontu banakatua. Renting bidezko errentamendu-jarduketaren kasuan, enpresa errentatzailearen eskaintzaren kopia, non ordaindu beharreko kuota azalduko den, baita kuota horretatik ibilgailuaren kostuari dagokion zatia ere.
- c. 3. jarduerarako:
 - Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, non lehen matrikulazioaren data, Espainiako matrikulazio-data eta emate-data adieraziko diren. Dokumentu horietako edozeinen faltan, ibilgailuaren historialaren berri ematen duen Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren txostena aurkeztuko da.
 - Memoria, gutxienez, honako hauek zehaztuz: laguntzaren xede diren eraldatu beharreko ibilgailuen marka, izen komertziala, bastidore-zenbakia eta matrikula, kategoria eta motorizazioa (hasierakoa eta amaierakoa), eta ibilgailu bakoitzerako eskatutako laguntzaren zenbatekoa. Bete-bete gas-ibilgailu gisa funtziona dezan (GNK, GNL) eraldatu beharreko M kategoriako ibilgailuen kasuan, aldatu beharreko ibilgailua «zoru baxuko» definizioaren barnean hartuta ez dagoela adieraziko da, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. Eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera.
 - Egin beharreko jarduketaren aurrekontu banakatua.
- d. 4. jarduerarako:
 - N2, N3, M2 edo M3 kategorietako ibilgailu elektriko (BEV), hibrido entxufagarria (PHEV) edo autonomia hedatuko (REEV) zuzenean erosteko edo leasing finantzario zein errentamenduko finantzaketa-eragiketen bitartez eskuratzeko laguntza-eskaera aldi berean aurkeztu izanaren egiaztagiria. Edo bete-bete ibilgailu elektriko (BEV) gisa funtziona dezan ibilgailuaren propulzio modua eraldatzeko laguntza-eskaera aldi berean aurkeztu izanaren egiaztagiria.
 - Aurrera eraman beharreko jarduketaren memoria deskribatzailea, gutxienez, jarduketaren deskribapena eta norainokoa, inbertsioa, kostu subentzionagarria eta eskatutako laguntza bildu beharko dituen. Horren barnean hartuko dira kargatze-puntu bakoitzaren potentzia eta instalazioaren potentzia osoa, konektorea edo konektoreak, sarbide mota (publikoa edo pribatua) eta Programa honen betekizunak betetzen direla egiaztatzea ahalbidetzen duten ezaugarri tekniko guztiak.
 - Instalazioaren partida ekonomiko garrantzitsuak bereiztea ahalbidetzen duen aurrekontu banakatua.
- e. 5. jarduerarako:
 - Memoria, gutxienez, honako hauek zehaztuz: laguntzaren xede diren erdiatoien marka, izen komertziala eta kategoria, eta ibilgailu bakoitzerako eskatutako laguntzaren zenbatekoa.
 - Egin beharreko jarduketaren aurrekontu banakatua.

2022ko martxoaren 11, ostirala



- k) Laguntzaren azken hartzailearen identifikazio-datuak (izena, izen soziala, IFZ, erregistroa, zerga-helbidea...).
- l) Eskrituraren, estatutuen edo eratze-egintzaren kopia.
- m) Garraio publikorako baimen-titulartasunaren kopia, laguntzak eskatzeko datan indarrean egon beharko duena, Programa honen 2.1 Oinarrian jasotakoaren arabera.
- n) Azken hartzailearen titulartasunpeko kontuaren IBAN zenbakiaren banku-ziurtagiria, eta azkenean ebatziko den dirulaguntza kontu horretan ordainduko da, behin laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak bete ondoren eskatzailea onuradun bihurtzen denean.
- o) Bidezko bada, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboaren kopia aurkeztu beharko da.

2. Egindako jarduketa justifikatzeko eskatutako dokumentazioa

a) 1. jarduera. Txatar bihurtzea. Txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren dokumentazioari dagokionez, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren izenean dagokion Ibilgailuen Tratamendurako Baimendutako Zentroak emandako «Ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duen ziurtagiriaren» eta desgiteari eta ingurumen-tratamenduari buruzko ziurtagiriaren kopia, edo bestela, dagokion Trafikoko Buruzagitza Probintzialaren Ibilgailuen Erregistro Orokorren txostena, behin betiko baja egiaztatzen duena. Ziurtagiri horren barnean hartu beharko dira, gutxienez, txatar bihurtutako ibilgailuen marka, izen komertziala, bastidore-zenbakia, matrikula, kategoria eta monitorizazioa.

2. Laguntzen azken hartzaileak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela justifikatzen duen ziurtagiria, aurreko 1. atalaren («Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa») e) letran ezarritakoa aplikatzekoa izanik.

b) 2. jarduera. Ibilgailuak erostea.

1. Erositako ibilgailuaren fitxa teknikoaren (IAT txartela) kopia.

2. Erositako ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, edo Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako behin-behineko Zirkulazio Baimenaren fotokopia. P letraz hasten den matrikula duten ibilgailuetarako aldi baterako baimena ematen den kasuetan, gehienez 60 eguneko epean behin betiko zirkulazio-baimenaren fotokopia aurkeztea eskatuko da. Gainera, hamabost (15) hilabeterainoko ibilgailu elektriko (BEV eta PHEV) eta hidrogeno-ibilgailuen (FCV, FCHV) kasuetan, ibilgailuaren zirkulazio-baimena aurkeztuko da, laguntzaren azken hartzaileari ibilgailua saldu dion kontzesionarioaren, saltokiaren edo fabrikatzaile/inportatzailearen izenean.

3. Laguntzen azken hartzaileak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela justifikatzen duen ziurtagiria, aurreko 1. atalaren («Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa») e) letran ezarritakoa aplikatzekoa izanik.

4. Renting edo leasing operatiboaren kasuan, renting edo leasing operatiboko kontratuaren kopia bat erantsiko da, non bi urteko gutxienezko iraupena ezarriko den, eta, kontratuaren errentari gisa, laguntzaren eskatzailea edo laguntzaren azken hartzailea izan daitekeena ageriko den. Kontratu horren data laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengoa izango da. Gainera, espresuki adieraziko da renting edo leasing enpresak laguntzaren guztizkoa jasanaraziko duela errentariak ordaintzeke dauzkan kuotetan, leasing edo renting enpresak laguntzaren zenbatekoa jasotzen duenez geroztik, edo

2022ko martxoaren 11, ostirala



ordaintzeke dagoen printzipala murriztuko duela, laguntza jasotzen duen uneaz geroztik. Ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, renting edo leasing kontratuan jaso beharko dira, halaber, errentamendu-kontratua amaitzean, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina ordaintzeko modua eta epea.

5. Laguntza zuzenean tramitatu bada azken hartzailearen bitartez, kobrantza-eskubidearen lagapeneko edo endosuko dokumentua, non renting enpresari laguntza jasotzeko baimena ematen zaion.

6. Ibilgailuaren fabrikatzailearen ziurtagiria, ibilgailuak erosteko zehaztutako irizpideak betetzen direla egiaztatzen duena, honako kasu hauetan:

a. M kategoriako ibilgailu hibridoak (HEV) zein gas-ibilgailuak (GNC, GNL) erosiz gero: Beharrezkoa da ibilgailuaren fabrikatzailearen ziurtagiri bat, ibilgailu horiek 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera «zoru baxuko» definizioaren barnean hartuta ez daudela adierazten duena.

b. N kategoriako ibilgailu hibridoak (HEV) erosiz gero: Ibilgailuaren fabrikatzailearen ziurtagiri bat behar da, ibilgailu hori (EB) 2019/1242 Erregelamenduaren aplikazio-eremuaren barnean hartuta dagoela, eta, horrez gain, «emisio gutxiko ibilgailu astunaren» definizioa betetzen duela adierazten duena.

7. Ibilgailuaren salerosketa-fakturaren kopia, eta haren data laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengoa izango da. Autofakturak ez dira onargarriak izango. Erositako ibilgailuaren matrikula edo bastidore-zenbakia, marka, izen komertziala eta bertsioa adierazi beharko dira fakturan.

8. Ibilgailuko salerosketa-fakturaren ordainketaren egiaztagiria: Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainketa-egiaztagiria:

- a. Azken hartzailea: argi geratu behar du ordaintzaile bakarria laguntzaren azken hartzailea dela.
- b. Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hiru garrena (saltokia, kontzesionarioa edo fabrikatzailea/inportatzailea).
- c. Ordainketa-data (balio-data) edo laguntzaren azken hartzailearen funtsen benetako irteera.
- d. Dirulaguntzaren xede den ibilgailua.
- e. Renting kasuetan, enpresa errentatzailea.

9. Banku-datuak egiaztatzen dituen ziurtagiria laguntzaren zenbatekoaren transferentziarako. Laguntzaren azken hartzailea, laguntza sartzen den kontu-zenbakiaren titularra izango da, non eta deialdietan entitate kolaboratzaile edo bitartekariak ezarri ez diren ibilgailuen saltoki gisa, edo renting enpresak, onuradunari zenbatekoa aurreratzeko; kasu horretan, dagokion faktura edo kontratua egiaztatzen bada, baita ordainagiria ere, kontua entitate kolaboratzaile edo bitartekariaren izenean egoteko aukera izango da. Halaber, renting eragiketen kasuan, renting entitatearena izango da kontua, baldin eta kontratua egiaztatzen bada, baita ibilgailuaren ordainketa-egiaztagiria eta kobrantza-eskubidea lagatzen duen dokumentua ere.

10. Subentzionatutako ibilgailuen argazkiak.

c) 3. jarduera - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propulzio modua aldatzea

1. . Ibilgailuaren indarreko IAT Txartelaren (fitxa tekniko) kopia (aurrealdea eta atzealdea), non eraldaketa legezkota dela eta zer eraldaketa mota egin den egiaztatzen den. Bete-bete gas-ibilgailu gisa funtziona dezan (GNK, GNL) eraldatu beharreko M kategoriako ibilgailuen eraldaketetarako, enpresa eraldatzailearen ziurtagiri bat aurkeztu behar da, ibilgailua «zoru baxuko» definizioaren barnean hartuta ez dagoela egiaztatzen duena, 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/858 Erregelamenduaren I. eranskineko C atalaren 3. puntuan zehaztutakoaren arabera.

2. Aldatutako ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren kopia.

2022ko martxoaren 11, ostirala



3. Jatorrizko ibilgailuaren potentzia-unitatearen gainean egiten den instalazioaren/aldaketaren fakturaren kopia. Fakturaren data laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengo izango da. Autofakturak ez dira onargarriak izango. Fakturan matrikula edo bastidore-zenbakia adierazi beharko da.

4. Laguntzen azken hartzaileak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela justifikatzen duen ziurtagiria, aurreko 1. atalaren («Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa») e) letran ezarritakoa aplikatzekoa izanik.

5. Ibilgailuko salerosketa-fakturaren ordainketaren egiaztagiria: Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainketa-egiaztagiria:

- a. Azken hartzailea: argi geratu behar du ordaintzaile bakarra laguntzaren azken hartzailea dela.
- b. Ordaindutako diru-kopuruak jasotzen dituen hirugarrena (eraldaketa egin duen enpresa).
- c. Ordainketa-data (balio-data) edo laguntzaren azken hartzailearen funtsen benetako irteera.
- d. Dirulaguntzaren xede den ibilgailua.

10. Subentzionatutako ibilgailuen argazkiak.

d) 4. jarduera. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea.

1. Behe-tentsioko Erregelamendu elektroteknikoaren arabera edo aplikatzekoa den kalitate eta segurtasun industrialaren alorreko araudiaren arabera egindako instalazioaren Memoria Teknikoa edo proiektua.

2. Kargatze-sistemen kokapena, kokapen horien erreferentzia plano batean, helbideak, zenbakia, eta longitudeko eta latitudeko GNSS koordenatuak (GPS, Galileo edo uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuarekin bateragarriak diren beste konstelazio batzuk) adierazita. Eraikinen eta parkingaren kasuan, parkingera sartzeko ibilgailuek duten sarbide nagusiari buruzkoak izango dira koordenatuak.

3. Fakturak. Kargatzeko puntua edo puntuak instalatzeko egindako kostu subentzionagarrien faktura xehatuak, honako hauei dagozkien kostuak barne har daitezkeelarik: proiektua; obra zibila; ingeniariartzako eta obra-zuzendaritzako kostuak; kargatze-azpiegituraren kostua; osagai edo elementu elektrikoaren instalazioa, transformadorea barne; banaketa-sarearekin eta erdi-tentsioko hargunearekin konektatzeko lanak, kargatze-azpiegitura elektrizitatearen tokiko produkzio- edo biltegitratze-unitatera edo sarera konektatzeko beharrezkoak direnak; lur edo errepideak egokitzea; instalazio-kostuak; eta lotutako eta beharrezko baimenengatiko kostuak. Energiaren produkzio-unitateei dagozkien kostuak ezin izango dira hautatu, nahiz eta kargatze-puntuari partzialki lotuta egon. Fakturen data, betiere, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengo izango da. 3.000 eurotik beherako zenbatekoa duten fakturak nahitaez aurkeztu beharra salbuesten da, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikulua b) letran ezarritakoari jarraikiz. Faktura guztiak barne hartuko dituen zerrenda ziurtatu bat aurkeztuko da, bakoitzerako, gutxienez, honako alderdi hauek adieraziz: faktura-zenbakia, faktura-data, kontzeptua, zerga-oinarri osoa eta kargatze-puntu bakoitzeko jasanarazitako kostu subentzionagarria (BEZik gabe).

4. Laguntzaren eraginpeko ondasun edota zerbitzuen hornidura-kontratuaren kopia, dagokion pertsona fisiko edo juridiko pribatu onuradunak formalizatua. Eskaeraren erregistro-dataren ondorengoak izan beharko dute kontratuen formalizazio-dateak, izan beharreko izaera pizgarriarekin bete dezaten.

5. Egotzitako salerosketa-fakturen ordainketaren justifikazio-dokumentuak. Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainketa-egiaztagiria:

- a. Onuraduna, argi geratu behar du ordaintzaile bakarra laguntzaren azken hartzailea dela.
- b. Ordaindutako diru-kopuruak jasotzen dituen hirugarrena.
- c. Ordainketa-data (balio-data) edo azken hartzailearen funtsen benetako irteera.

2022ko martxoaren 11, ostirala



6. Ez da justifikazio-konturik aurkeztea onartuko, eta ez da dokumentazioa aurkezteko betebeharretik salbuetsiko.

7. Eusko Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntzako Lurralde Ordezkaritzak bideratutako instalazio-elektrikoaren ziurtagiriaren kopia. Nahitaezko administrazio-lizentzia eta administrazio-baimenak dauzkatala egiztatzen duen justifikazio-dokumentazioa aurkeztu behar dute jarduketek, dagokion jarduketak hori eskatzen badu.

8. Erantzukizunpeko adierazpena, non bermatzen den programa honen kontura finantzatutako neurri eta jarduketetako batek ere ez diela ingurumen-helburuei kalte esanguratsurik eragiten (EB) 2020/852 Erregelamenduari 17. artikulua arabera («ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa edo DNSH ingelesezko sigletan: «Do No Significant Harm»), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduko 5. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Batzordeak, berriz, 2021/C 58/01 Komunikazioan ezartzen du «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokion Erregelamenduari jarraikiz, printzipio horren esanahia eta suspertze- eta erresilientzia-mekanismoaren testuinguruan nola aplikatu behar den argitzeko helburuarekin. Horren barnean hartzen da laguntza programa hau hartzen duen 1. osagaiko 1. inbertsioan esleitutako eta aurreikusitako baldintzak betetzea, eta bereziki, Planaren Osagaiari buruzko dokumentuaren 3. eta 8. ataletan jasotakoak, Ministro Agindu honen barnean hartutako jardueri dagokienez (dokumentu hori webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/16062021-Componente1.pdf>).

9. Kargatze-azpiegituraren eta lotutako instalazio elektrikoaren argazkiak

e) 5. jarduera. *Trenbide-autobideetan erabiltzeko erdiatoiak erostea.*

1. Ibilgailuaren sailkapen-ziurtagiria, erakunde ziurtagiri-emaile batek emana UIC 596-6 edo UNE-EN 13044-3 arauen arabera, ibilgailuaren bastidore-zenbakiarekin.

2. Ibilgailuaren ILU-CODE kodearen egiaztagiria edo argazkia

3. Ibilgailuaren fitxa teknikoaren (IAT txartela) kopia.

4. Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, edo Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako behin-behineko Zirkulazio Baimenaren fotokopia.

5. Ibilgailuaren salerosketa-fakturaren kopia, azken hartzailearen izenean, edo, renting edo leasing finantzarioko eskuratzeko kasuan, renting edo leasing enpresaren izenean. Data, laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengo izango da. Erositako ibilgailuaren matrikula edo bastidore-zenbakia, marka, izen komertziala eta bertsioa adierazi beharko dira fakturan.

6. Renting edo leasing operatiboaren kasuan, renting edo leasing operatiboko kontratuaren kopia bat erantsiko da, non bi urteko gutxieneko iraupena ezarriko den, eta, kontratuaren errentari gisa, laguntzaren eskatzailea edo laguntzaren azken hartzailea izan daitekeena ageriko den. Kontratu horren data laguntza-eskaeraren erregistro-dataren ondorengo izango da. Gainera, espresuki adieraziko da leasing edo renting enpresak laguntzaren guztizkoa jasanaraziko duela errentariak ordaintzeke dauzkan kuotetan, leasing edo renting enpresak laguntzaren zenbatekoa jasotzen duenez geroztik, edo ordaintzeke dagoen printzipala murriztuko duela, laguntza jasotzen duen uneaz geroztik. Ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, leasing edo renting kontratuan jaso beharko dira, halaber, errentamendu-kontratua amaitzean, azken hartzaileari ordaintzeke dagoen laguntza-soberakina ordaintzeko modua eta epea. Ibilgailuko salerosketa-fakturaren ordaintzetaren egiaztagiria: Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordaintze-egiaztagiria: eroslea edo azken hartzailea, saltzailea edo leasing zein renting enpresa, data eta ibilgailuaren bastidore-zenbakia.

2022ko martxoaren 11, ostirala



7. Laguntza zuzenean tramitatu bada azken hartzailearen bitartez, kobrantza-eskubidearen lagapeneko edo endosuko dokumentua, non renting enpresari laguntza jasotzeko baimena ematen zaion.

8. Ibilgailuko salerosketa-fakturaren ordainketaren egiaztagiria: Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainketa-egiaztagiria:

- a. Azken hartzailea: argi geratu behar du ordaintzaile bakarria laguntzaren azken hartzailea dela.
- b. Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hirugarrena (saltokia edo kontzesionarioa edo eraldatzailea).
- c. Ordainketa-data (balio-data) edo laguntzaren azken hartzailearen funtsen benetako irteera.
- d. Dirulaguntzaren xede den ibilgailua.
- e. Renting kasuetan, enpresa errentatzailea.

9. Laguntzen azken hartzaileak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela justifikatzen duen ziurtagiria, aurreko 1. atalaren («Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa») e) letran ezarritakoa aplikatzekoa izanik.

10. Subentzionatutako erdiatuen argazkiak.